

AURKIBIDEA

INDICE

2

1. EUOPAR BATASUNA 25 KIDETARA ZABALTZEA ETA EAE-KO EKONOMIA: ZENBAIT ALDERDI.....	1
<i>ALGUNOS ASPECTOS DE LA AMPLIACIÓN DE LA UNIÓN EUROPEA A 25 MIEMBROS Y LA ECONOMÍA VASCA</i>	
2. EAE-KO 2003KO EKONOMIAREN SINTESIA.....	4
<i>SINTESIS DE LA ECONOMIA VASCA EN 2003</i>	
2.1. EAEko Ekonomiaren Testuingurua	7
<i>Contexto de la Economía Vasca</i>	
2.2. Ekoizpena eta Eskaria.....	15
<i>Producción y Demanda</i>	
2.2.1. Ekoizteko jarduera	19
<i>Actividad productiva</i>	
2.2.2. Eskariaren osagaiak	25
<i>Agregados de la demanda</i>	
2.2.3. Lan merkatua.....	28
<i>Mercado de trabajo</i>	
2.2.4. Prezioak, kostuak eta soldatak	33
<i>Precios, costes y salarios</i>	
2.2.5. Kanpo saldoa eta lehiakortasuna.....	37
<i>Saldo exterior y competitividad</i>	
3. EAE-RAKO AURREIKUSPEN MAKROEKONOMIKOA.....	44
<i>EL ESCENARIO MACROECONOMICO PARA EL PAIS VASCO</i>	
3.1. Kanpoko ingurunearen bilakaeraren gaineko hipotesiak.....	45
<i>Hipótesis de evolución del entorno exterior</i>	
3.2. EAEko aurreikuspen makroekonomikoa	49
<i>El escenario macroeconómico de la CAPV</i>	

**1. EUROPAR BATASUNA 25 KIDETARA ZABALTZEA ETA
EAE-KO EKONOMIA: ZENBAIT ALDERDI**

***ALGUNOS ASPECTOS DE LA AMPLIACIÓN DE LA
UNIÓN EUROPEA A 25 MIEMBROS Y LA ECONOMÍA
VASCA***

Apirilaren 16an hamar herrialde berrik (Eslovenia, Estonia, Hungaria, Letonia, Lituania, Polonia, Txekiar Errepublikak, Eslovakia, Zipre eta Malta) Europar Batasunera Atxikitzeko Ituna sinatuta, 2004ko maiatzaren 1ean Europar Batasuna 25 kidek eta 452 milioi lagunek osatuko dute. Bulgaria eta Errumania ustez 2007. urtean (eta, oraindik zehaztu gabe dagoen data batean, Turkia) Europar Batasunean sartzeak zabalkuntza prozesua elkarte honek datozen urteetan izango duen erroka garrantzitsuenetarikoa bihurtu du. Zabalkuntza berri honen lehen fasean parte hartuko duten herrialde kopuru altuak (hamar herrialde), BPGren terminoetan egingo duten ekarpenak (oraingo EBren BPGren %4,8), biztanleriak (oraingo EBren %19,7), lurralde hedapenak (%23an gehituko dute EBren lurralde fisikoa), oraingo EBren batez bestearen aldean garapen mailan, errentan (EB-15eko BPG biztanlekoaren %48,4, erosteko ahalmenaren parekotasunean neurtuta), ekoizteko egituran (lehen arloak eta natur baliabide eta kualifikazio gabeko langile asko erabiltzen duten industrien pisu handia dute) eta lan kostuetan (orduko lan kostua EB-15eko batez bestea baino sei aldiz merkeagoa da) duten maila apalak garrantzia handiko ondorioak izango dituzte politikan, erakundeetan eta ekonomian.

Are gehiago, aipatutako hamar herrialde horiek talde heterogeneoa osatzen dute. Alde batetik, Poloniak biztanleria osoaren %51,4 dauka eta bere BPG biztanleko eta EAPen neurtuta EBren batez bestearen %39 da. Bestetik, Ziprek biztanleriaren %1 baino ez dauka eta EBren batez bestearen %76an dago. Landunen banaketari dagokionez, Poloniaren %28 lehen arloan dago (%26 industrian eta eraikuntzan) eta Txekiar Errepublikan, berriz, %4 besterik ez arlo horretan (%40 industrian eta eraikuntzan).

Beraz, garbi dago herrialde guzti horiek maila apaletik abiatzen direla Europar Batasunarekin termino errealetan bat egiteko bidean, nahiz eta azken urteetan ahalegin ekonomiko garrantzitsuak egin dituzten. Ahalegin horien ondorioz, atzeritik etortziko zuzeneko inbertsio handiak, BPGrekiko neurtuta, jaso dituzte (neurri handi batean pribatizazioei esker) eta enpresa multinazionalen estrategia orokorrean hautatuak izan dira beren hornikuntza eta ekoizpen sareen egoitzak izateko.

Nazioarteko merkataritzaren integrazioaren teoria ekonomikoaren arabera, zabalkuntza prozesuaren ondorioz kide berriekin eginiko merkataritza nabarmen areagotuko da (horrela gertatu baita historian zehar) eta ekoizpen faktoreak esleitzeko prozesuan eraginkortasun hobekuntza garrantzitsuak lortuko dira. Beraz, emaitza positiboak lortuko dira oro har. Hala ere, prozesu horretan parte hartuko duten herrialde guztientzat erroka eta arrisku garrantzitsuak ere egongo dira, zalantzarik gabe.

EAEko ekonomia 1986. urtean garai hartako Europako Ekonomia Elkartean sartu zenean ere beldur handiak agertu ziren (lehiatzeko ahalmen txikiagoa, egiturazko eskasia larriak ekoizpen sisteman eta azpiegituretan, bertoko merkatuan izan zitezkeen galerak, eta abar). Hala ere, elkarte horren barruan hamazazpi urte eman ondoren egiten den balantzea guztiz positiboa da. Dena dela, Europar Batasunaren zabalkuntzak EAEko ekonomian izan ditzakeen eraginak kontuan hartu behar dira. Balizko eragin horiek hiru multzo handitan zehaztu daitezke.

Lehenengo eta behin, 2006. urtetik haratago ezer erabakita egon ez arren, litekeena da EAEk jasotzen dituen egiturazko eta kohesioko funtsetan eragin negatiboa izatea, baita 2. Helburuko eskualdea izateari eusten dion ere. Izan ere, zabalkuntza prozesua alde batera utzita, funts horiek murrizketa garrantzitsua izan dute dagoeneko 2000-2006 aldian (batez beste 212 milioi euro jasoko dira urteko) 1993-2000 urteekin alderatzen badira (batez beste 272 milioi euro jaso ziren urteko).

La firma el pasado día 16 de abril del Tratado de Adhesión a la Unión Europea de diez nuevos estados (Eslovenia, Estonia, Hungría, Letonia, Lituania, Polonia, República Checa, Eslovaquia, Chipre y Malta) dará paso el próximo 1 de mayo de 2004 a una Unión Europea constituida por 25 miembros y 452 millones de personas. La presumible incorporación de Bulgaria y Rumanía en 2007 (y, en un futuro no concretado con exactitud, de Turquía) convierten a este proceso en uno de los retos de mayor importancia a los que se enfrenta la UE en los próximos años. El elevado número de estados participantes en la primera fase de esta nueva ampliación (diez), su aportación en términos de PIB (4,8% del PIB de la actual UE), población (19,7% de la actual UE), extensión territorial (añadirán un 23% de territorio físico a la UE), sus bajos niveles respecto a la media de la actual UE en cuanto a nivel de desarrollo, renta (48,4% del PIB per cápita en PPA de la UE-15), estructura productiva (importante peso del sector primario y de las industrias intensivas en recursos naturales y mano de obra poco cualificada) y costes de mano de obra (costes laborales por hora seis veces inferiores a la media UE-15) tendrán efectos políticos, institucionales y económicos de indudable trascendencia.

Además, los diez países señalados conforman un grupo bastante heterogéneo. Polonia aglutina al 51,4% de la población total con un PIB per cápita en PPA del 39% de la media de la UE, mientras que Chipre, con el 1% de la población, alcanza el 76% de la media de la UE. En distribución de la población ocupada, Polonia alcanza el 28% en el sector primario (26% en industria y construcción) frente al 4% de la República Checa en ese mismo sector (40% en industria y construcción).

Resulta evidente, por tanto, que todos estos países parten de posiciones muy bajas en su proceso de convergencia real con la UE, si bien en los años precedentes han realizado esfuerzos importantes que les han permitido convertirse en receptores de elevados volúmenes de inversión directa extranjera sobre PIB (en gran parte debido a los procesos de privatizaciones) y les han hecho aparecer como lugares elegidos de las estrategias globales de multinacionales que han apostado por ellos como sedes de parte de sus redes de suministro y producción.

Aunque de acuerdo con la teoría económica de la integración comercial internacional, lo esperable del proceso de ampliación es un incremento importante del comercio bilateral con los nuevos socios (como así ha sucedido históricamente) unido a mejoras sustanciales en la eficiencia de la asignación de los factores productivos, conformando todo ello un resultado neto positivo, no cabe duda de que existen retos y riesgos importantes para todos los participantes en el proceso.

La incorporación en 1986 de la economía vasca a la entonces Comunidad Económica Europea también estuvo acompañada de grandes temores (menor capacidad competitiva, graves deficiencias estructurales en el aparato productivo y en infraestructuras, pérdidas de mercado propio, etc.) que, sin embargo, el balance tras diecisiete años de permanencia otorga un saldo netamente positivo. No obstante, conviene tener en cuenta los posibles impactos económicos que la ampliación de la UE tenga sobre la economía vasca y que se pueden concretar en tres grandes bloques.

En primer lugar, aunque no hay nada decidido para después de 2006, es más que probable un impacto negativo sobre los fondos estructurales y de cohesión que recibe el País Vasco incluso manteniéndose el "statu quo" del Objetivo 2. Independientemente del proceso de ampliación, estos fondos ya han sufrido una merma importante en el período 2000-2006 (se recibirá una media de 212 millones de euros por año) frente al período 1993-2000 (se recibió una media de 272 millones de euros por año).

Bigarren tokian, zuzeneko inbertsio atzeritarra lortzeko lehia nabarmen areagotuko da eta enpresen ekoizpen faseak tokiz aldatzeko estrategiek oso paper garrantzitsua hartuko dute. Izan ere, estatu kide berri horietako batzuek abantaila geografikoa dute Eskandinaviako herrialdeek, Alemaniak eta Italiako iparraldeak osatzen duten ardatzetik oso hurbil daudelako. Aldi berean, beren barne merkatuek hazteko ahalmen handia dute, lan kostuetan abantaila nabarmenak dituzte eta giza kapitalaren hornidura oso garrantzitsua da.

Hirugarren tokian, EAEko eta estatu kide berrietako industri ekoizkinen arteko antzekotasunak lehia areagotuko du. Lehia ez da bakarrik gauzatuko beren merkatuen artean (zuzeneko lehia), zeren lehia garrantzitsuena etorkizuneko EB-25 osatuko duten gainontzeko estatuetak merkatuetan gertatuko baita.

Gaur egun, EAEren eta estatu kide berrien artean dauden merkataritza harremanak guztiz marjinalak dira eta, esate baterako, 2002. urtean EAEko esportazio osoaren %3,2 baino ez zen bideratu merkatu horietara eta handik ekarritako inportazioak guztizkoaren %4,6 besterik ez ziren. Ekoizkinen arabera, makinak eta tresnak eta automobilak izan ziren esportatutakoaren %54a eta, inportazioen aldean, erregai mineralak %34 lortu zuten. Aldi berean, orain arte, herrialde horiek ez dira merkatu erakargarriak izan EAEko enpresentzat bertan kanpo inbertsioak egiteko. Hain zuzen ere, 1993 eta 2001 urteen artean EAEtik kanpo inbertitutakoaren %0,5 baino ez da lurralde horietara zuzendu. Azkenik, etorkizuneko estatu kide berriak izango diren herrialdeetan dauden EAEko enpresak ia bakarrik Polonian eta Txekiar Errepublikan daude kokatuta, automobilaren arloko multinazional handiek diseinatutako estrategiek bultzatu dituzte, neurri handian, EAEko enpresa horiek herrialde horietan kokatzera.

Espainiako ekonomiaren esparruan zenbait azterlan egin dira zabalkuntzak izango dituen ondorioak neurtzeko eta, oro har, emaitzak negatibo samarrak izan dira. Hala ere, azken urteetako historiari zuhurtziaz jokatzeari gomendatzen du eta zabalkuntzaren aurrean mesfidantzako edo beldurreko jokaera bat hartzea ez da komeni. Aitzitik, are beharrezkoagoa da, merkatu horietan zabalduko diren aukeretan konfiantza izatea. Aukera horiek EAEko ekonomiak oro har eta beraren industriak bereziki baliatzen jakin beharko dute, azken urteetan jakin izan duten bezala.

En segundo lugar, se incrementará de modo notable la pugna por captar inversión extranjera directa y las estrategias de deslocalización de las fases de producción de las empresas adquirirán un papel muy relevante. De hecho, algunos de los nuevos estados miembros ofrecen la ventaja geográfica de estar situados muy próximos al eje de los países nórdicos, Alemania y norte de Italia, tienen mercados nacionales con fuertes potenciales de crecimiento, elevadas ventajas en costes laborales e importantes dotaciones de capital humano.

En tercer lugar, las amplias similitudes entre muchos de los productos industriales vascos y los de los nuevos estados miembros acrecentarán la competencia no sólo directa entre los mercados propios sino, sobre todo, en mercados terceros como son los del resto de estados de la futura UE-25.

En la actualidad, las relaciones comerciales entre el País Vasco y el conjunto de nuevos estados miembros tienen carácter marginal ya que, por ejemplo, en el año 2002 sólo el 3,2% de la exportación total del País Vasco se destinó a esos mercados mientras que las importaciones procedentes de ellos alcanzaron el 4,6% del total. Por productos, las máquinas y aparatos, y vehículos automóviles alcanzaron el 54% de lo exportado, mientras que los combustibles minerales llegaron al 34% de lo importado. Asimismo, hasta la fecha, estos países no han sido considerados por las empresas vascas como mercados atractivos para la inversión exterior vasca, por cuanto que en el período 1993-2001 apenas alcanzó el 0,5% del total invertido fuera del País Vasco. Finalmente, la presencia de empresas vascas asentadas en los futuros nuevos estados miembros ha tendido a concentrarse de modo casi absoluto en Polonia y en la República Checa, y en la mayor parte de los casos empujadas en buena medida por las estrategias diseñadas por las grandes multinacionales del sector del automóvil.

Aunque se han realizado diversos estudios en el ámbito de la economía española intentando medir los efectos de la ampliación, siendo, en general, las conclusiones medianamente negativas, no conviene, por pura prudencia y la historia reciente así lo aconseja, adoptar una postura de recelo o temor ante ella. Por el contrario, se hace más necesario, si cabe, confiar en las grandes potencialidades de mercado que se abren, oportunidades que la economía vasca, en general, y su industria en particular, deben saber aprovechar, tal y como ha sucedido en el pasado reciente.

2004

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK
PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

2. EAE-KO 2003KO EKONOMIAREN SINTESIA ***SINTESIS DE LA ECONOMIA VASCA EN 2003***

2002. urteko hiruhilekoetan zehar inflexio gunea marraztu ondoren, 2003. urteko lehen seiuhilekoan EAEko ekonomiak 2002ko laugarren hiruhilekoan hasitako susperraldia egonkortu duela ematen du. Hain zuzen ere, seiuhilekorako hazkunde tasa %2,2 izan da, berau osatzen duten bi hiruhilekoetako igoera berdina izan delarik. Aipatutako %2,2ko gehikuntza hori oso handia ez izan arren, Europar Batasunak seiuhilekoan batez beste lortutako emaitzaren oso gainetik dago (%0,75) eta, bete aldetik, ez dator bat Europako gunean jaso den moteltzearekin (%1,0 lehen hiruhilekoan eta %0,5 bigarrenean), gure errenta erreala Europarekikoa berriro hobetzeko eta 2001 eta 2002 urteetan hazkunde erritmoan lortutako aldea areagotzeko aukera emanez.

Después de describir un valle cíclico en la evolución trimestral de 2002, durante el primer semestre de 2003, la economía vasca parece haber estabilizado el repunte iniciado en el cuarto trimestre de 2002, consiguiendo un ritmo de avance para el semestre del 2,2%, porcentaje idéntico para los dos trimestres que lo integran. Este resultado del 2,2%, aunque moderado, se sitúa claramente por encima de lo registrado por la Unión Europea en la media del semestre (0,75%) y diverge positivamente respecto a la desaceleración manifiesta en el área europea (1,0% en el primer trimestre y 0,5% en el segundo), permitiendo nuevamente mejorar nuestra renta real comparada y ampliar el diferencial favorable de ritmos logrado en los datos anuales de 2001 y 2002.

1. taula / Cuadro nº 1 Barne Produktu Gordina Producto Interior Bruto

Urte arteko aldakuntza tasak

Tasas de variación interanual

	1999	2000	2001	2002	2002				2003		
					I trim.	II trim.	III trim.	IV trim.	I trim.	II trim.	
Europar Batasuna	2,8	3,5	1,6	1,0	0,6	1,1	1,2	1,3	1,0	0,5	Unión Europea
EAE	4,9	5,2	2,9	1,7	1,8	1,6	1,6	1,7	2,2	2,2	País Vasco
Espainia	4,2	4,2	2,8	2,0	2,2	2,0	1,8	2,1	2,2	2,3	España
Alemania	1,9	3,1	1,0	0,2	-0,1	0,1	0,4	0,5	0,1	-0,2	Alemania
Frantzia	3,2	4,2	2,1	1,3	0,9	1,5	1,3	1,3	0,7	-0,3	Francia
Erresuma Batua	2,8	3,8	2,1	1,7	1,4	1,5	1,9	2,0	1,8	2,0	Reino Unido
AEB	4,1	3,8	0,3	2,4	1,4	2,2	3,3	2,9	2,0	2,5	Estados Unidos

Oharra: Serietan urterokotasuna eta egutegiaren eragina zuzendu dira, EAEko serietan izan ezik.
Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, EUSTAT eta OCDE.

Nota: Series corregidas de estacionalidad y efecto calendario excepto para el País Vasco.
Fuente: Dirección de Economía y Planificación, EUSTAT y OCDE.

Bereziki deigarria da egiaztatzea EAEko ekonomiak 2003ko lehen seiuhilekoan lortu dituen emaitzak oso aldekoa ez zen nazioarteko testuinguru batean lortu direla, kontuan hartzen badira EAEko ekonomiaren egiturazko ezaugarriak (kanporako irekiera maila altua eta, horren ondorioz, kanpotik datozen shocken aurrean egoera ahulagoan; industriaren pisu erlatibo handiagoa eta ekipamendurako ondasunen arloa oso garrantzitsua). Hots, oro har nazioarteko eskariak eta bereziki EAEko ekonomiarentzat garrantzitsuenak direnak (Europar Batasunetik datozenak, alegia) oso ahul egon dira, ekonomia garatuek ekipamendurako ondasunetan eginiko gastuak oraindik ez du suspertzeko zantzu handirik erakutsi eta euroak dolarraren aldean izan duen balio irabazi sendoak EAEko ekoizkinen lehiakortasuna modu exogeno batean zaildu dute. Are gehiago, AEBek eta Japoniak bezalako ekonomiek lehen seiuhilekoan lortu duten susperraldia ahulduta geratu da Europako ekonomia nagusiek izan duten beheranzko joerarekin. Horiek horrela, Munduko Merkataritza Erakundeak pasa den abuztuan estimatu zuen munduko merkataritza %3 edo zerbait gutxiago areagotuko dela 2003. urtean, 2002. urteko %2,5aren aldean, baina hori urteko bigarren erdian mundu mailako susperraldia gauzatzen bada bakarrik. Espainiako ekonomiari dagokionez, 2003ko lehen erdian eta urtarokotasuna eta egutegi efektua zuzendutako seriean, 2002ko laugarren hiruhilekoan hasitako susperraldia (%1,8) zertxobait areagotu zuen eta %2,3ko hazkundera lortu 2003ko bigarren hiruhilekoan (lehenengo hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago). Azpiko bilakaerako datuetan, hots ziklo-joerako seriean, berriz, estimatu den bizkortzea nabarmenagoa da eta bigarren hiruhilekoko hazkundera %2,5 izan da (lehen hiruhilekoko baino hiru hamarren handiagoa).

Es singularmente relevante que estos resultados de la economía vasca en el primer semestre de 2003 se alcanzaran frente a un contexto internacional escasamente favorable a las características estructurales de la economía vasca (elevado grado de apertura exterior, y por lo tanto mayor vulnerabilidad a los shocks exteriores, mayor peso relativo de la industria y un sector de bienes de equipo muy importante) por cuanto que las demandas internacionales, en general, y las más importantes para la economía vasca (Unión Europea), en particular, estuvieron muy deprimidas, el gasto de inversión en bienes de equipo de las economías desarrolladas siguió sin mostrar síntomas de reactivación importantes y la fuerte apreciación del euro frente al dólar contribuyó a dificultar de manera exógena la competitividad de los productos vascos. Además, la reactivación ofrecida por economías como la de EE.UU. y Japón durante el primer semestre se vio contrarrestada por la tendencia a la baja de las principales economías europeas, de tal modo que la Organización Mundial de Comercio estimó en el pasado agosto que el avance del comercio mundial en 2003 será del 3% o inferior frente al 2,5% de 2002, siempre bajo la hipótesis de reactivación mundial en la segunda parte del año. Por lo que respecta a la economía española, durante la primera mitad del 2003, en serie corregida de estacionalidad y efecto calendario, aceleró ligeramente la recuperación iniciada en el cuarto trimestre de 2002 (1,8%) alcanzando un avance del 2,3% en el segundo trimestre de 2003 (una décima más que en el primero), mientras que en datos ciclo-tendencia (evolución subyacente) la aceleración estimada fue más notable situándose en el 2,5% (tres décimas más que en el primer trimestre).

Arreta EAEko ekonomian, eskaintzaren ikuspegian, jartzen badugu, aipatu behar da ekoizpen adar guztiek ekarpen positiboa egin ziotela barne produktu gordinaren hazkundeari, baina euren artean alde handiak daudela, hala bizitasunean nola bilakaeraren norabidean. Hain zuzen ere, eraikuntza izan da berriro hazkunde biziena lortu duen arloa, urteko lehen sei hilabeteetan %4,2 hazi baita eta beraren bilakaerak moteltzeko joera arina erakutsi du. Industriak, berriz, 2002ko bigarren seihilekoan lortutako susperraldia luzatu egin du eta %1,4 hazi. Azkenik, zerbitzuek aurreko seihilekoan izandako erritmo bera (%2,2) lortu dute.

Eskariaren ikuspegitik, barne eskariak ekarpen positiboa egin zuen (2,35 ehuneko puntu), baina kanpo eskariak hamarren bat kendu zion BPGren hazkundeari. Barne eskariak 2002. urtean zehar izan zuen moteltzeko joera bertan behera geratu zen 2003. urteko lehen hiruhilekoan eta areagotu egin zuen bere ekarpena. Suspertze horren oinarrian, kontsumo pribatuaren erritmo egonkorra (%1,7) eta, bereziki, kapital eraketa gordinak lortutako hobekuntza (%3,4) daude. Azken aldagai horren barnean, ekipamendurako ondasunen atala bizkortu egin zen (%1,5), baina eraikuntzako inbertsioa, oraindik erritmo biziena duen arren, moteldu egin zen (%5,2). Beste aldetik, kanpo eskariaren ekarpena negatiboa izan zen, zeren atzerria zuzendutako esportazioek emaitza ona lortu bazuten ere, inportazioak zerbait gehiago areagotu baitziren.

EAEko jarduerak lortu zuen hobekuntzak emaitza kontrajarriak izan zituen landunen kopuruan, bertoko lan merkatua aztertzean dauden iturrien arabera. Izan ere, BJA inkestaren eta Gizarte Segurantzako afiliazioaren arabera, landunen kopurua gutxiago areagotu da. Joera hori bereziki BJA-n hauteman da (%1,8 lehen hiruhilekoan eta %1,1 bigarrean), baina baita afiliazioan ere (%1,9 lehenengoan eta %1,7 bigarrean). Aitzitik, BAI inkestaren estimazioetan, landunen hazkundera areagotu da (%1,8 lehen hiruhilekoan eta %2,9 bigarrean). Azkenik, bigarren hiruhilekoko langabezi tasa %8,4ra murriztu zen, BJAren arabera, lehen hiruhilekoko baino zazpi hamarren apalago baita.

Jarduera suspertu bazen ere, kontsumoko prezioek moteltzeko joera erakutsi zuten EAEn 2003. urteko lehen erdian zehar (%3,5 lehen hiruhilekoan eta %2,6 bigarrean), aurreko urtean izan zuten goranzko bilakaeraren aldean. Joera apalago horretarako mesedegarria izan dira, neurri batean, euroaren hedapenak 2002. urtean sortu zituen goranzko eraginak desagertu izana eta euroak dolarraren aldean balioa irabazi izana. Hala eta guztiz ere, tasa horiek oraindik %2 ez gainditzeko Europan ezarri zen helburutik eta KPI harmonizatuaren Europako batez bestetik (%1,8 izan zen bigarren hiruhilekoan) oso gaitetik daude.

Urte honen bigarren erdiari begira, nazioarteko susperraldia iragartzen duten iritziak, hala nola Europako Batzordeak euroaren eremuarentzat irailean argitaratu duen hiruhilabeteak txostena, ugaritzen hasi arren, EAEko adierazle sintetikoek etorkizunean izango duten bilakaeraz berton egin diren aurreikuspenek, hala sektorekoek nola orokorrek, ez dute, une honetan, biderik ematen aukera horretan gehiegi sinesteko. Aitzitik, aurreikuspenek lehen seihilekorako estimatu den hazkunde bera edo zerbait apalagoa iragartzen dute bigarrenerako ere, eta susperraldia 2004. urtearen erdialdea arte ez zen gauzatuko, orduan ere oso bizia izango ez zelarik. Edozein kasutan, nazioarteko aurreikuspen guztien oinarrian dagoen hipotesi nagusia Amerikako Estatu Batuen ekonomia 2003ko amaieran eta 2004an sendo suspertuko delakoa da eta oinarritzko hipotesi horren gainean oraindik zalantza handiak daude.

Centrando el análisis en la economía vasca, la desagregación del PIB desde el lado de la oferta muestra una contribución positiva al aumento del PIB por parte de todas las ramas productivas, si bien hay notorias discrepancias tanto en intensidad como en perfil de evolución. En efecto, mientras que el sector de la construcción sigue siendo el más dinámico con un 4,2% en los seis primeros meses de este año, y su evolución marca un proceso de suave desaceleración, la industria, con un avance del 1,4%, prolonga el repunte logrado en el segundo semestre de 2002, y el sector servicios (2,2%) repite ritmos logrados en el semestre anterior.

Desde el lado de la demanda, la aportación positiva provino de la demanda interna (2,35 puntos porcentuales) mientras que la demanda externa restó una décima al aumento del PIB. La gradual desaceleración de la demanda interna a lo largo de 2002 se truncó con un repunte en el primer trimestre de 2003, debido a los ritmos sostenidos del consumo privado (1,7%) y, sobre todo, a la mejora experimentada por la formación bruta de capital (3,4%) afianzada en el relanzamiento de su componente de bienes de equipo (1,5%) ya que la inversión en construcción, aunque siguió siendo la más dinámica, se desaceleró (5,2%). Por su parte, la contribución negativa de la demanda externa se produjo pese al resultado positivo en las exportaciones al extranjero ya que las importaciones también aumentaron ligeramente por encima de las anteriores.

La mejora de la actividad vasca tuvo un reflejo divergente en el comportamiento de la ocupación según las distintas fuentes del mercado de trabajo vasco. Así, según la PRA y la afiliación a la Seguridad Social, la ocupación prosiguió su desaceleración, más nítida en el caso de la PRA (1,8% en el primer trimestre y 1,1% en el segundo) que en la afiliación (1,9% en el primero y 1,7% en el segundo). Por el contrario, la ocupación según la EPA se aceleró (1,8% en el primer trimestre y 2,9% en el segundo). Asimismo, la tasa de paro del segundo trimestre según la PRA se redujo al 8,4%, siete décimas menos que en el primer trimestre.


Por su parte, pese al repunte de la actividad, los precios de consumo mostraron en el País Vasco una trayectoria de desaceleración durante la primera parte del año 2003 (3,5% en el primer trimestre y 2,6% en el segundo) si se comparan con la evolución más alcista que reflejaron durante el año anterior. A ello ha podido contribuir, en alguna medida, la desaparición de los efectos alcistas derivados de la introducción del euro en 2002 y la apreciación del euro frente al dólar. No obstante, estos valores están muy por encima del objetivo europeo de no superar el 2% y de la media europea del IPC armonizado, que en el segundo trimestre fue del 1,8%.

Para la segunda mitad del año, y pese a que comienzan a abundar las opiniones favorables a una recuperación internacional en este período, como así se señala, entre otros, en el informe trimestral de septiembre sobre la economía de la zona del euro elaborado por la Comisión, las previsiones propias efectuadas sobre la evolución futura de los distintos indicadores sintéticos coyunturales del País Vasco, tanto sectoriales como globales, no permiten, por el momento, afianzar esa posibilidad, sino que, por el contrario, dibujan unas perspectivas de comportamiento más en línea con lo estimado para el primer semestre o algo inferior, para remontar moderadamente a mediados de 2004. En cualquier caso, la hipótesis básica sobre la que se asientan todas las previsiones internacionales es la recuperación intensa de la economía norteamericana para finales de 2003 y 2004, hipótesis sobre la que siguen persistiendo dudas más que razonables.


2.1. EAEko Ekonomiaren Testuingurua *Contexto de la Economía Vasca*

2002. urtean, nazioarteko ekonomian ziurgabetasuneko testuingurua zen nagusi, ekonomia garatuenetan eragin nabarmenak utzi (finantza eskandaluak AEBetan, krisiaren jarraipena informatika eta telekomunikazio alorretan, burtsa jaitsierak, kontsumitzaileen konfiantza galera eta tentsio geopolitikoak). Horrek guztiak kalte egin zien inbertsioa eta suspertzeko igurikapenak bezalako aldagai ekonomiko garrantzitsuei. Horren ondorioz, munduko hazkundea ahula eta zalantzas beterikoa izan zen, suspertzeko aurreikuspenek behin eta berriro kale eginez eta ekonomiaren berrabiatze desiratu 2003 eta 2004 urteetara geroratu.

En el año 2002, la economía internacional estuvo dominada por un contexto de persistentes incertidumbres que afectaron a las economías más desarrolladas (escándalos financieros en Estados Unidos, continuación de la crisis en sectores informáticos y de telecomunicaciones, caídas bursátiles, pérdida de confianza de los consumidores y tensiones geopolíticas) y que terminaron por incidir negativamente en variables clave como la inversión así como en las expectativas de recuperación. Como consecuencia de todo ello, el crecimiento mundial fue débil y vacilante, incumpléndose una y otra vez las previsiones de recuperación, y postergando al 2003 y 2004 la ansiada reactivación económica.



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina
Fuente: Elaboración de la Direc. de Economía y Planificación



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina
Fuente: Elaboración de la Direc. de Economía y Planificación

2003. urteko hasieran, aurreko urteko faktore negatibo horiek bere horretan jarraitu zuten eta kasu batzuetan (Irakeko gatazka armatuaren hastapenak) areagotu ziren. Hori dela eta, burtsaren eta petrolio gordinaren merkatuek gorabehera handiak izan zituzten eta kontsumitzaileen eta enpresariaren konfiantza ezak jarraitu. Hala eta guztiz ere, hilabeteak aurrera joan ahala, beldur horietako zenbait uxatu ziren. Izan ere, Irakeko gatazka armatuaren ondorioz sortutako ziurgabetasun geopolitikoak, neurri handi batean, urteko bigarren hiruhilekoan arindu zen, gerra azkar amaitu zelako. Horri esker, burtsa merkatuek, martxo arte galera handiak jaso baitzituzten, gora egin zuten, lehendabizi AEBetan eta gero beste toki zenbaitetan. Dolarraren beheranzko joera ekaina arte luzatu zen eta petrolio gordinaren prezioa nabarmen merkatu zen Irakeko gerra amaitu ondoren, gatazka hasi baino lehen izan zuen garestitze handiaren aldean.

Los inicios de 2003 siguieron lastrados por los elementos negativos presentes en 2002 y, en algún caso (preludios del conflicto armado en Irak) agudizados, por lo que la volatilidad de mercados bursátiles y del crudo, y la desconfianza de consumidores y empresarios persistió. No obstante, a medida que avanzaban los meses, algunos de los temores se fueron diluyendo. Así, el clima de fuerte incertidumbre geopolítica derivado del conflicto bélico en Irak remitió en gran parte en el segundo trimestre del año ante la rápida resolución de la guerra y con ello los mercados bursátiles, que hasta mediados de marzo habían registrado pérdidas considerables, repuntaron, primero en Estados Unidos y posteriormente en otras plazas. Prosiguió la tendencia depreciatoria del dólar, que se prolongó hasta el mes de junio, y el precio del crudo bajó considerablemente tras el final de la guerra en Irak en comparación con el fuerte encarecimiento antes del conflicto.

2002. urtean, euroaren esparruko ekonomiak bere sorreratik inoiz izan duen hazkunde tasarik apalena jaso zuen eta bilakaera hori gainontzeko ekonomia garatuenek izan zutenarekin bat etorri arren, bere emaitzak apalagoak izan ziren eta, edozein modutan, hazkunde ahalmenetik oso azpitik egon zen. Garbi geratu zen bere ekonomia kanpoko shocken aurrean ahul agertzen dela eta ahalmen urria duela horiek behar bezala gainditzeko, neurri batean, zikloaren aurkako neurri publikoak hartzea oso zaila delako, ekonomia nagusiek defizit handiak dituztelako.

En 2002, la economía de la zona euro registró el crecimiento más reducido desde su creación, y si bien mantuvo una evolución en sincronía con el resto de economías más desarrolladas, sus resultados fueron más modestos y, en cualquier caso, muy por debajo de su potencial de crecimiento. Resultó patente la vulnerabilidad de su economía a los shocks exteriores, así como la escasa capacidad para remontarlos de manera satisfactoria debido, en parte, a las serias dificultades de poder arbitrar medidas públicas anticíclicas por los problemas de déficit en las economías nacionales más importantes.

AEBetako eta Japoniako ekonomiak ez bezala, 2003. urteko bigarren hiruhilekoan hazkunde erritmoa bizkortu baitzuten, euroaren esparruko ekonomiak, 2003ko lehen seiuhilekoan, hazkunde tasa are gehiago apaldu zuen, bereziki urteko bigarren hiruhilekoan. Azpimarratzekoak dira Alemaniako kasua, urte arteko tasan bi hamarreneko jaitsiera jaso baitzuen, eta Frantziako ekonomiarena, hiru hamarreneko aldakuntza tasa negatiboa izan baitzuen. Egoera horren aurrean, ekainaren hasieran Europako Banku Zentralak interes tasak 50 oinarri puntutan beheratu zituen, %2,2an kokatuz. Aldi berean, Erreserba Federalak ere interes tasak jaitsi zituen ekainean, kasu honetan %1ean utzi arte, AEBetako ekonomiaren susperraldia oso sendoa ez zela irizita.

Euroguneko ekonomiaren egoera estua kontuan hartuta, 2003. urterako hazkunde aurreikuspenak ezin dira baikorrak izan. Izan ere, hala Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) nola OCDEk erdira murriztu dituzte lurralde horretarako hazkunde aurreikuspenak, %0,5ean kokatuz eta susperraldia 2004. urtera atzeratuz. Positiboagoak dira AEBetarako aurreikuspenak, zeren OCDEk %2,5aren inguruko hazkunde aurreikusi baitu urte honetarako eta NDFk, berriz, %2,6koa.

AEBetako ekonomiak gora egin zuen bigarren hiruhilekoan, 2002ko laugarren hiruhilekoan hasitako motelaldiaren ondoren, eta %2,5 hazi 2003ko lehen hiruhilekoko %2,0aren aldean. Joera aldaketa positibo hori barne eskariaren bizkortzeak eta kanpo eskariaren ekarpen negatibo txikiagoak bultzatu zuten. Hain zuzen ere, barne eskaria %2,5 haztetik %2,9ra igaro zen bigarren hiruhilekoan, hala kontsumoaren (bereziki kontsumo publikoaren) nola inbertsioaren portaera hedakorriaren esker. Kontsumo pribatua lau hamarren areagotu zen eta %2,9ra iritsi, zergen jaitsierek bultzatuta, eta kontsumo publikoa neurri handiagoan bizkortu zen, lehen hiruhilabeteko %3,2tik bigarreneko %4,5era igaroz. Kapital finakoaren eraketa gordina ere nabarmen bizkortu zen, %0,4tik %2,6ra igaroz. Kanpo eskariaren ekarpen negatibo garbia lau hamarrenekoa izan zen bigarren hiruhilekoan, lehenengo hiruhilekoan jasotakoa baino hamarren bat txikiagoa, beraz. Izan ere, dolarrek balioa galdu arren, inportazioak esportazioak baino gehiago moteldu ziren. Bigarren hiruhilabeteko jardueraren handiagoak ez ziren kalterik ekarri kontsumoko prezioei, urte arteko gehikuntza tasa zortzi hamarren beheratu baitzuten eta %2,1ean kokatu. Hori dela eta, deflazioaren arriskua Erreserba Federalaren kezka nagusietarikoan izan da. Jardueraren bizkortzeak ez zuen eraginik izan lan merkatuan ere, zeren langabezi tasak gora egin baitzuen lau hamarren bigarren hiruhilekoan, %6,2an kokatu arte.

Japoniari dagokionez, BPG errealak 2003ko lehen erdian lortu zuen igoera espero zena baino handiagoa izan da, lehen hiruhilekoan %2,9 eta bigarrenean %3,0 haziz. Portaera hori barne eskariari zor zaio, bigarren hiruhilekoan hiru hamarren areagotu zelako, %2,7 gehituz. Barne eskariak bigarren hiruhilekoan izan zuen hazkunde handiagoa kapital finakoaren eraketa gordinaren gorakadak, urte arteko tasan %1,8tik %5,3ra gehitu baitzen, eta kontsumo pribatuaren bizkortze arinak eragin zuten. Kanpo eskariak barne produktu gordinaren hazkundeari egin zion ekarpen garbia lehen hiruhilabeteko bost hamarrenetatik bigarreneko hiru hamarrenetara murriztu zen, apirila eta ekaina bitarteko esportazioak nabarmen moteldu zirelako. Hala eta guztiz ere, bigarren hiruhilabeteko emaitza on horiek ez zuten beren ordaina jaso lan merkatuan eta langabezi tasa %5,4an jarraitu zen laugarren hiruhilabetez segidan. Prezioek hazkunde negatiboak baina gero eta txikiagoak jasotzen jarraitu zuten eta urte arteko tasan %-0,3 eta %-0,2ko beherakadak izan zituzten lehenengo eta bigarren hiruhilabeteetan, hurrenez hurren.

Erresuma Batuari dagokionez, bere ekonomia zalantzarik beterik ibili zen nolabaiteko egonkortasun baten barruan eta 2002ko bigarren erdian antzeko portaera erakutsi zuen. Hain zuzen ere, BPG

A diferencia de Estados Unidos y Japón, cuyas economías se aceleraron en el segundo trimestre de 2003, durante el primer semestre de 2003, la economía de la zona euro desaceleró aún más sus ritmos de crecimiento, en especial en el segundo trimestre del año, destacando el caso de la economía alemana, que registró una contracción en términos interanuales de dos décimas, y el de la economía francesa que tuvo una variación negativa de tres décimas. Ante esta situación, a principios de junio el BCE redujo los tipos de interés en 50 puntos básicos, situándolos en el 2%, medida acompañada por la Reserva Federal, que al no considerar sólida la recuperación de la economía norteamericana, también redujo en junio los tipos de interés oficiales, en este caso hasta el 1%.

Dada la precaria situación coyuntural de la economía de la zona euro, sus perspectivas de crecimiento para el año 2003 no son muy alentadoras. De hecho, tanto el FMI como la OCDE han reducido a la mitad sus previsiones de crecimiento para esta área, situándolas en el 0,5%, y postergando para 2004 la reactivación económica. Más positivas son las previsiones para la economía americana ya que la OCDE prevé una expansión de su actividad en torno al 2,5% para el año en curso y el FMI del 2,6%.

La economía de Estados Unidos repuntó en el segundo trimestre tras el proceso de desaceleración iniciado en el cuarto trimestre de 2002, creciendo el 2,5% frente al 2,0% del primer trimestre de 2003. Este cambio de tendencia positivo en el segundo trimestre estuvo impulsado por la aceleración de la demanda interna y la menor aportación negativa del sector exterior. Así, la demanda interna pasó de crecer un 2,5% a hacerlo un 2,9% en el segundo trimestre, gracias al comportamiento expansivo tanto del consumo (principalmente el público) como de la inversión. El consumo privado se aceleró cuatro décimas hasta el 2,9% impulsado por las rebajas impositivas, mientras que el consumo público lo hizo en mayor medida, al pasar del 3,2% del primer trimestre al 4,5% del segundo. La formación bruta de capital fijo también se aceleró notablemente, al pasar del 0,4% al 2,6%. La aportación negativa de la demanda externa neta fue de cuatro décimas en el segundo trimestre, una menos que en el primero, debido a la mayor desaceleración de las importaciones en comparación con las exportaciones a pesar de la depreciación del dólar. La mayor actividad en el segundo trimestre no afectó a los precios de consumo, que redujeron su incremento interanual ocho décimas, hasta el 2,1%, situando el riesgo de deflación como una de las principales preocupaciones para la Reserva Federal. La aceleración de la actividad tampoco se reflejó en el mercado laboral, dado que la tasa de paro repuntó cuatro décimas en el segundo trimestre, hasta situarse en el 6,2%.

Por lo que se refiere a Japón, el avance de su PIB real en la primera mitad de 2003 fue superior al esperado, creciendo un 2,9% en el primer trimestre y un 3,0% en el segundo. Este comportamiento se debió al tirón de la demanda interna, que en el segundo trimestre se aceleró tres décimas respecto al primero, creciendo un 2,7%. Este mayor crecimiento de la demanda interna en el segundo trimestre vino impulsado por el repunte de la formación bruta de capital fijo, que pasó del 1,8% interanual al 5,3%, y por la ligera aceleración del consumo privado. La aportación de la demanda externa neta al crecimiento del PIB se redujo de las cinco décimas del primer trimestre a las tres décimas del segundo, debido a la fuerte desaceleración de las exportaciones entre abril y junio. Estos resultados favorables del segundo trimestre, sin embargo, no se trasladaron al mercado laboral, ya que la tasa de paro se mantuvo en el 5,4% por cuarto trimestre consecutivo. Los precios continuaron en su tónica de menor crecimiento negativo al registrar un -0,3% y un -0,2% de variación interanual en el primer y segundo trimestre respectivamente.

En cuanto al Reino Unido, su economía evolucionó de modo dubitativo en un perfil de cierta estabilidad, teniendo un comportamiento similar al de la segunda mitad de 2002. Así, el PIB

errealak %1,8 hazi zen 2003ko lehen hiruhilekoan eta %2,0 bigarreanean, 2002ko bigarren seiuhilekoaren %1,95aren aldean. Bigarren hiruhilekoaren bizkortze arin hori barne eskariaren hobekuntza txikiak eragin zuen, %2,6 gehitu baitzen lehen hiruhilekoaren %2,5aren aldean. Barne eskarian, kontsumo publikoa gehiago hazi zen (%3,9), baina kontsumo pribatua (%2,8tik %2,4ra) eta, bereziki, inbertsioaren eginiko gastua (%5,0tik %1,5era) apaldu ziren. Kanpo eskariak, berriz, barne produktu gordinaren hazkundera hamarrenak kentzen jarraitu zuen, esportazioak %-5,3 eta inportazioak %-2,4 gutxitu zirelako. Kontsumoko prezioek hazkunde erritmoa %3ra murriztu zuten, lehenengo hiruhilekoan sei hamarren bizkortu ondoren. Azkenik, langabezi tasak 2003ko lehen erdian %3,1ari eutsi zion eta dagoeneko sei hiruhileko jarraian darama tasa horretan.

Lehenago aipatua izan denez, euroaren esparruko ekonomia moteltzen jarraitu zen 2003ko lehen erdian. BPG errealak %0,8ko urte arteko gehikuntza jaso zuen lehen hiruhilekoan eta %0,2ra apaldu bigarreanean. Barne eskaria zertxobait moteldu zen bigarren hiruhilekoan, kontsumoaren hazkunde txikiagoaren eta inbertsioaren ahuleziaren ondorioz. Euroa sendotzen ari den testuinguru batean, esportazioek beren jaitsiera areagotu zuten apirila eta ekaina bitartean (-5,9), lehen hiruhilekoan urte arteko emaitza baino lau puntutik gorako beherakada baita. Inportazioek ere tasa negatiboak izan zituzten, baina kasu honetan bigarren hiruhilekoan bakarrik. Horren guztiaren ondorioz, kanpo arloak barne produktu gordinaren hazkundera egiten dion ekarpen negatiboa areagotu zen. Hala ere, kontsumoko prezioak kontrolpean egon ziren eta langabezi tasa bi hamarren igo zen bigarren hiruhilekoan %8,9an kokatu arte.

real creció un 1,8% en el primer trimestre de 2003 y un 2,0% en el segundo, frente al 1,95% del segundo semestre de 2002. Este ligero repunte del segundo trimestre fue debido exclusivamente a una mínima mejora de la demanda interna que avanzó el 2,6% frente al 2,5% del primer trimestre, impulsada por el mayor crecimiento del consumo público (3,9%) ya que tanto el consumo privado (del 2,8% al 2,4%) como, en especial, el gasto en inversión (del 5,0% al 1,5%) se desaceleraron. Por su parte, la demanda exterior neta siguió trayendo décimas porcentuales al aumento del PIB, registrando las exportaciones una caída del -5,3% y las importaciones del -2,4%. Los precios de consumo ralentizaron su crecimiento hasta el 3% tras haber repuntado seis décimas en el primer trimestre y la tasa de paro siguió estabilizada en el 3,1% en la primera mitad de 2003, con lo que lleva ya seis trimestres consecutivos anclada en ese valor.

Tal y como se ha comentado anteriormente, la economía de la zona euro continuó su desaceleración en la primera mitad de 2003. El PIB real registró un incremento interanual del 0,8% en el primer trimestre para desacelerarse hasta el 0,2% en el segundo. La demanda interna se desaceleró ligeramente en el segundo trimestre debido al menor crecimiento del consumo y a la atonía de la inversión. En un contexto de apreciación del euro, las exportaciones intensificaron su caída entre abril y junio (-5,9%), más de cuatro puntos negativos respecto al resultado interanual del primer trimestre, mientras que las importaciones también arrojaron tasas negativas, en este caso sólo en el segundo trimestre. Todo ello hizo que el sector exterior aumentase su aportación negativa al crecimiento del PIB. Los precios de consumo, sin embargo, se mantuvieron bajo control, mientras que la tasa de paro se aceleró dos décimas hasta el 8,9% en el segundo trimestre.

2. taula / Cuadro nº 2 Ekonomiaren aldagai nagusiak Principales variables económicas

	2002	2002		2003		
	Batez b. media	III hiru. III trim.	IV hiru. IV trim.	I hiru. I trim.	II hiru. II trim.	
BPG errearen Hazkundera						Incremento del PIB real
AEB	2,4	3,3	2,9	2,0	2,5	EE.UU.
Japonia	0,2	1,5	2,5	2,9	3,0	Japón
Europar Batasuna	1,0	1,2	1,3	1,0	0,5	UE
Alemania	0,2	0,4	0,5	0,1	-0,2	Alemania
Frantzia	1,3	1,3	1,3	0,7	-0,3	Francia
Erresuma Batua	1,7	1,9	2,0	1,8	2,0	Reino Unido
Inflazioa						Inflación
AEB	1,6	1,6	2,2	2,9	2,1	EE.UU.
Japonia	-0,9	-0,8	-0,5	-0,3	-0,2	Japón
Europar Batasuna	2,1	1,9	2,2	2,2	1,8	UE
Alemania	1,4	1,1	1,2	1,2	0,9	Alemania
Frantzia	1,9	1,7	2,1	2,4	1,9	Francia
Erresuma Batua	1,6	1,5	2,5	3,1	3,0	Reino Unido
Langabezi tasa						Tasa de paro
AEB	5,8	5,7	5,9	5,8	6,2	EE.UU.
Japonia	5,4	5,4	5,4	5,4	5,4	Japón
Europar Batasuna	7,7	7,7	7,8	8,0	8,0	UE
Alemania	9,8	9,8	10,0	10,5	10,6	Alemania
Frantzia	9,0	9,1	9,2	9,4	9,5	Francia
Erresuma Batua	3,1	3,1	3,1	3,1	3,1	Reino Unido

Iturria: OCDE.

Fuente: OCDE.

Alemaniak, euroguneko ekonomia nagusiak, %-0,2ko hazkunde negatiboa izan zuen bigarren hiruhilekoan urte arteko tasan, lehenengo hiruhilekoan bere BPG %0,1era moteldu ondoren. Barne eskaria suspertu egin zen 2003ko lehenengo sei hilabeteetan, aurreko bi urteetan jaitsi ondoren, eta %0,7ko hazkundea jaso zuen bi hilabeteetan. Kontsumo publikoaren hazkunde handiagoak eta inbertsioaren hazkunde negatiboa baina txikiagoak kontsumo pribatuaren apaltzea berdinu zuten bigarren hiruhilekoan. Kanpo eskariak barne produktu gordinaren hazkundeari lehen hiruhilekoan sei hamarren kentzetik bigarreanean bederatziz hamarren kentzera igaro da, esportazioak nabarmen galgatu direlako, alde batetik testuinguruko ekonomietan ahultasuna dagoelako eta bestetik euroak balioa irabazi duelako. Alemaniako kontsumoko prezioen indizea (KPI) %0,9an kokatu zen bigarren hiruhilekoan, lehen hiruhilabeteetan baino hiru hamarren beherago, beraz. Langabezi tasa hamarren bat gehiago hazi zen apirila eta ekaina bitartean eta %10,6an kokatu, urteko lehen hiru hilabeteetan bost hamarren igo eta gero.

El modesto repunte mostrado por la actividad industrial en el primer semestre de 2003 contrasta con la fase de desaceleración sobre ritmos elevados en la que se halla inmersa la actividad del sector de la construcción (4,2% en el primer semestre), con un avance del 4,3% en el primer trimestre y del 4,0% en el segundo. En este punto, es preciso señalar que estos ritmos estimados para el VAB del sector de construcción difieren del repunte que muestra su indicador sintético (gráfico nº 11).




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina
Fuente: Elaboración de la Direc. de Economía y Planificación

Tal y como resulta habitual en este sector, la información aportada por los indicadores coyunturales resulta confusa por la disparidad de evoluciones y de intensidades. Así, la evolución de los ocupados en el sector, según la EPA y la PRA, estaría describiendo una fase de desaceleración importante pero sobre ritmos muy elevados (9,6% y 7,6% según la EPA, y 6,3% y 5,3% según la PRA en tasas suavizadas para el primer y segundo trimestre, respectivamente) mientras que los ocupados según la Encuesta de Coyuntura de la Construcción (ECCE) elaborada por Eustat señalaría un práctico estancamiento (-0,3% y 0,3% en tasas suavizadas para el primer y segundo trimestre del año, respectivamente). Por su parte, el perfil descrito por el consumo aparente de cemento viene a contradecir la información de los ocupados por cuanto que es claramente al alza (4,8% y 7,3% en los dos primeros trimestres). Finalmente, la actividad del sector aproximada por el valor nominal de producción de la ECCE, muy condicionada en su global por los malos resultados en obra civil (-9,6% en el segundo trimestre), muestra un escaso comportamiento en el semestre, incluso contractivo en el segundo trimestre del año (-0,8%). Las previsiones realizadas para este indicador en el resto del año 2003 muestran una recuperación que estaría avalada por los datos de cartera de pedidos del propio sector que, frente a un aumento medio del 9,0% en 2002, registran un avance medio en el primer semestre del 35,3%.


Por último, el sector servicios siguió mostrando una tendencia hacia crecimientos estables en el entorno del 2,2% en el primer semestre de 2003, ritmo de avance que ya reflejó en el segundo semestre de 2002 tras un primer semestre de desaceleración. La ligera mejora de la actividad industrial, con su correspondiente mínimo impacto sobre los servicios conectados a la industria (transporte, comunicaciones y

enpresentzako zerbitzuak). Beste aldetik, kontsumo pribatuaren susperraldi urriak ere merkatuzko diren zerbitzuen bilakaera izan du eragina eta baita arlo horren landun kopuruaren portaera ere. Izan ere, BAI inkestaren arabera, zerbitzuetako enpleguak motelaldi arina izan zuen (%1,2 2002ko laugarren hiruhilekoan eta %1,0 eta %0,9 2003ko lehen eta bigarren hiruhilekoetan, hurrenez hurren). Antzeko bilakaera baina erritmo altuagoetan ikusten da Eustatek egin duen barne merkataritzako adierazlearen enpleguan (%1,6 2002ko laugarren hiruhilekoan eta %1,4 eta %1,3 2003ko lehen eta bigarren hiruhilekoetan, hurrenez hurren). Bide beretik ere, baina erritmo altuagoetan, doa BJA inkestak zerbitzuetako enpleguari buruz kaleratutako informazioa (%4,4 2002ko laugarren hiruhilekoan eta %2,6 eta %1,7 2003ko lehen eta bigarren hiruhilabeteetan, hurrenez hurren).

servicios a empresas), y el escaso repunte estimado para el consumo privado han incidido en la evolución de la actividad de servicios ligados al mercado, condicionando a su vez el comportamiento de la ocupación en el mismo. Así, la ocupación en servicios según la EPA describió un perfil de lenta desaceleración (1,2% en el cuarto trimestre de 2002 junto con el 1,0% y el 0,9% para el primer y segundo trimestre de 2003, respectivamente), perfil similar aunque con ritmos ligeramente más elevados por parte del empleo en el indicador de comercio interior elaborado por Eustat (1,6% en el cuarto trimestre de 2002 junto con el 1,4% y el 1,3% para el primer y segundo trimestre de 2003, respectivamente). En la misma línea, aunque con ritmos más elevados, evolucionó la información sobre ocupados del sector servicios proporcionada por la PRA (4,4% en el cuarto trimestre de 2002 junto con el 2,6% y el 1,7% para el primer y segundo trimestre de 2003, respectivamente).



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina
Fuente: Elaboración de la Direc. de Economía y Planificación



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina
Fuente: Elaboración de la Direc. de Economía y Planificación


2.2.2. Eskariaren osagaiak
Agregados de la demanda

EAEko barne eskariak 2002. urtean zehar izan zuen motelaldiaren ondoren, neurri handi batean kapital eraketa gordinaren bultzada txikiagoak eraginda baitzegoen, 2003ko lehen sei hilekoan susperraldi garrantzitsua jaso da %2,3ko erritmo egonkorren inguruan. 2002an eta 2003an gertatu ziren interes tasen jaitsierak ekonomiaren eragileetara igarotzeak eta, oro har, moneta baldintza erosoak egoteak, eta enpleguaren neurriko bizitasunak bide eman dute, alde batetik, kontsumo pribatuak erritmo positiboetara eusteko eta, beste aldetik, ekipamenduan eginiko inbertsioa, 2002ko tasa negatiboen ondoren, zertxobait areagotzeko. Horrek guztiak barne eskariaren hobekuntza ahalbidetu du, nahiz eta eraikuntzan eginiko inbertsioa apaldu den, baina oraindik osagai dinamikoena izaten jarraitu da.


Aitzitik, atzerrira zuzendutako esportazioek, urteko lehen sei hilekoan, izan duten hobekuntza atzerritik ekarritako inportazioen bilakaera are hedakorragoak orekatu du. Horiek horrela, kanpo eskariak (atzerriarrekiko zein Estatuarekiko saldoak hartzen dira kontuan aldagai horretan) barne produktu gordinaren hazkundeari 2003. urtean egin dion ekarpen garbia 2002ko laugarren hiruhilabetean jaso zen hamarren negatibo bakarrean mantendu da.

Tras la gradual desaceleración experimentada por la demanda interna vasca a lo largo de 2002, forzada en buena medida por una progresiva menor pujanza de la formación bruta de capital, durante el primer semestre de 2003 se produjo un importante repunte sobre ritmos trimestrales estables del 2,3%. La traslación a los agentes económicos de las rebajas de tipos de interés realizadas en 2002 y en 2003 y, en general, la persistencia de unas holgadas condiciones monetarias, junto con el moderado dinamismo del empleo, permitieron, de un lado, que el consumo privado sostuviese ritmos positivos y, por otro, que la inversión en equipo repuntara ligeramente tras las tasas negativas de 2002, conduciendo todo ello a una mejora de la demanda interna pese a la desaceleración de la inversión en construcción, que, no obstante, siguió siendo el componente más dinámico.

Por el contrario, la mejora experimentada por las exportaciones al extranjero durante el primer semestre del año se ha visto compensada por la evolución ligeramente más expansiva de las importaciones desde el extranjero, de tal modo que la estimación de la aportación neta al aumento del PIB por parte de la demanda externa vasca (donde se incluyen el saldo con el extranjero y el saldo con el resto del Estado) se ha mantenido en la décima negativa del cuarto trimestre de 2002.



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina
Fuente: Elaboración de la Direc. de Economía y Planificación



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina
Fuente: Elaboración de la Direc. de Economía y Planificación

6. taula / Cuadro nº 6
Barne eskariaren adierazleak
Indicadores de demanda interna

Urte arteko aldakuntza tasak

Tasas de variación interanuales

	2002			2003		
	II	III	IV	I	II	
KONTSUMO PRIBATUA						CONSUMO PRIVADO
Adierazle sintetikoa	2,2	2,0	1,9	2,0	1,9	Indicador sintético
BMI txikizkaria (*)	4,6	6,1	5,8	4,5	3,1	ICI minorista (*)
Landunak txikizkarian (*)	2,3	1,9	1,5	1,3	1,5	Ocupados minorista (*)
Automobilen matrikulazioa (*)	-10,5	-10,6	-6,6	-2,3	-1,5	Matriculación turismos (*)
Eraketa gordina ekipamenduan						Formación Bruta Equipo
Baliabideen adierazlea	-7,3	-2,5	-6,9	2,8	3,1	Indicador de disponibilidades
IPI ekipamendua EAE (*)	-3,5	-3,5	-1,2	0,1	0,0	IPI Equipo País Vasco (*)
IPI ekipamendua Estatu (*)	-10,0	-4,2	0,8	2,2	0,9	IPI Equipo Estado (*)
Ekipamendu-ondas. inport.erreal.	-6,2	0,9	-22,4	5,6	8,6	Importac. Reales B. de Equipo
Zama-ibilgailuen matrikulazioa (*)	-10,0	-7,7	-2,9	3,3	4,6	Matric. Vehículos de carga (*)

(*) Urteko tasa leunduak.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, Eustat, INE, Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.

(*) Tasas anuales suavizadas.

Fuente: Dirección de Economía y Planificación, Eustat, INE, DGT.

EAEko kontsumo pribatuarentzat 2002. urtean zehar estimatu ziren erritmo nahiko egonkorak eta neurrikoak, eta Eustatek urteko batez bestean %1,6an kokatu zituen (hots, INEk Estatu osorako estimatu zuen tasa baino puntu luze bat txikiagoa), zertxobait gorantz joan dira 2003ko lehen sei hilekoan. Azken portaera hori adierazle sintetikotik eratorri da, zeren enpleguari buruz eskura dauden zatikako adierazleek oso portaera kontrajarriak erakutsi baitituzte. Izan ere, BAI inkestak bizkortzea eskaini duen bitartean, Gizarte Segurantzako afiliazioak motelaldia galgatu duela ematen du eta BJA inkestaren landunek motelaldia luzatu dute. Egindako gastuaren ikuspegitik, gastua, BMI txikizkariaren arabera, moteldu egin da baina oraindik indartsu dabil. Bestetik, 2002. urtean automobilen matrikulazioan jaso ziren emaitza negatibo garrantzitsuak nabarmen arindu dira.

Kapital finkoaren eraketa gordinak 2002. urteko hiruhilekoetan apaltzeko joera nabarmena erakutsi zuen, balio txikiena laugarren hiruhilabetean jasoz. Eraikuntzan egindako gastuaren bilakaera biziak aurre egin zion orduan ekipamenduan eginiko inbertsioaren portaera negatiboari. 2003ko lehen sei hileko estimazioak, ordea, gorakada egonkorra (%3,2) erakutsi du, ekipamenduan eginiko gastua (%1,5) hobetu delako, eraikuntzan eginikoa (%5,2) apaldu den bitartean.

Osagaien arabera, eraikuntzan eginiko gastua berriro izan zen dinamikoena eta %5,0aren gaineko gehikuntza tasak lortu zituen. Ekipamendurako ondasunetan eginiko gastuak, ordea, urte arteko aldakuntza tasa positiboa izan du hiru hiruhilabetez jarraian zenbaki negatibotan ibili ondoren. Hobekuntza horren arrazoia ez dago, nagusiki, ekipamendurako ondasunen EAEko barne ekoizpenean (%-0,2 hazi da ekaina arteko tasa metatuan) edo Estatuko produkzioan (%0,3 gehitu da epe berean), ekipamendurako ondasunen inportazio errealean sendotasunean baizik. Azken hauek %5,6 hazi ziren lehen hiruhilekoan eta %8,6 bigarrean (kasu bietan beren prezioak nabarmen merkatu ziren). Aipatutako ezaugarriek zehurtzia eskatzen dute aldagai honek urte osoan izango duen etorkizuna aurreikustean.

Los ritmos relativamente estables y moderados estimados para la evolución del consumo privado vasco a lo largo de 2002, que condujeron a una media de aumento en el año del 1,6% según Eustat (más de un punto inferior a la estimada por el INE para el conjunto del Estado), se han visto ligeramente flexionados al alza en el primer semestre de 2003. Este último comportamiento está obtenido a partir del indicador sintético, por cuanto que la evolución de los indicadores parciales disponibles sobre ocupación muestran comportamientos absolutamente dispares. En efecto, frente a la aceleración ofrecida por la EPA, los afiliados a la Seguridad Social parecen haber frenado su desaceleración y los ocupados de la PRA prolongaron su desaceleración. Desde la óptica del gasto efectivo, el gasto según el ICI minorista se habría desacelerado pero seguiría siendo intenso y los abultados resultados negativos de la matriculación de turismos correspondientes a 2002 se han mitigado de manera notable.

Después de un proceso de importante desaceleración mostrado por la formación bruta de capital fijo en los trimestres de 2002, con mínimo en el cuarto trimestre y donde a la evolución dinámica del gasto en construcción se opuso el comportamiento negativo de la inversión en equipo, la estimación para el primer semestre de 2003 muestra un repunte en ritmos estables (3,2%) como consecuencia de la mejora del gasto en equipo (1,5%) frente a la desaceleración del gasto en construcción (5,2%).

Por componentes, el gasto en construcción siguió siendo el más dinámico manteniendo una senda de incrementos relativamente estables por encima del 5,0% mientras que el gasto en bienes de equipo registra una variación interanual positiva tras tres trimestres consecutivos negativos, apoyada no tanto en la producción interna vasca de bienes de equipo (-0,2% interanual del acumulado a junio) ni en la del conjunto del Estado (0,3% para el mismo período), sino en el vigor de las importaciones reales de bienes de equipo, que crecieron el 5,6% en el primer trimestre y el 8,6% en el segundo (en ambos casos con fuertes variaciones negativas de sus precios). Las características señaladas implican adoptar cautelas sobre el futuro de esta variable para el conjunto del año.

2.2.3. Lan merkatua

Mercado de trabajo

EAEko ekonomiak, aurreko ekitaldien aldirian, 2002. urtean hazkunde erritmoan izan zuen moteltze nabarmenak bere eragina utzi zuen enpleguaren bilakaeran. Hain zuzen ere, Eustaten kontu ekonomikoaren aurrerapenean azaldu denez, 2002. urtean enplegua %1,5 hazi zen, 2001. urtean %2,9 gehitu zen bitartean. Enpleguaren hazkunde neurriko horrek 13.500 lanpostu berri sortzea ahalbidetu zuen eta, horri esker, 2002ko batez bestean 888.500 lagun zeuden lanean EAEn. Txanponaren ifrentzia da ekonomia eta enpleguaren hazkundera batera lan faktorearen itxurazko ekoizkortasunak ez duela garapen handirik lortu azken urteetan eta horrek kalte egin diezaiokete EAEko ekonomiaren lehiakortasunari etorkizunean. Zentzu horretan, esan behar da EAEn ekoizkortasun aldeak garrantzitsuak izan direla, Estatuan bezala, Europar Batasunarekiko (4 eta 9 hamarren beherago EAEkoa) edo eurogunearrekiko (2 eta 9 hamarren beherago) 1998 eta 2002 urteen artean.

La notable desaceleración en el ritmo de crecimiento de la economía vasca en el año 2002 en comparación con ejercicios anteriores también se reflejó en la evolución del empleo que se incrementó un 1,5% en 2002 frente al 2,9% registrado en 2001 según el avance de Cuentas Económicas de Eustat. Este moderado aumento de ocupados permitió crear más de 13.500 nuevos empleos elevando el total de la ocupación media en 2002 a más de 888.500 personas. En el apartado negativo, habría que señalar que el crecimiento de la economía y del empleo no se ha visto acompañado durante los últimos años de un avance significativo de la productividad aparente del factor trabajo, lo cual podría repercutir negativamente en la competitividad de la economía vasca a futuro. A este respecto, son significativos los diferenciales de productividad desfavorables que mantiene el País Vasco, al igual que el Estado, con los países de la UE (entre 4 y 9 décimas porcentuales) o con los de la zona euro (entre 2 y 9 décimas porcentuales) durante el periodo 1998-2002.

7. taula / Cuadro nº 7 BPG, enplegua eta lan faktorearen ekoizkortasuna PIB, ocupación y productividad del factor trabajo

Urte arteko aldakuntza tasak

Tasas de variación interanuales

	1998	1999	2000	2001	2002	
BPG erreala	6,0	4,9	5,3	2,9	1,7	PIB real
Landunak (*)	5,4	4,5	4,8	2,9	1,5	Personal Ocupado (*)
Lan faktorearen itxurazko ekoizkort. EAE	0,6	0,4	0,5	0,0	0,2	Product. aparente del factor trabajo PV
Lan faktorearen itxurazko ekoizkort.EB	1,2	1,1	1,4	0,4	1,1	Product. aparente del factor trabajo UE
Lan faktorearen itxurazko ekoizkort. Eurogunea	1,0	1,0	1,4	0,3	0,4	Product. aparente del factor trabajo Zona Euro

(*) Kontu ekonomikoaren arabera (Eustat).

Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

(*) Según Cuentas Económicas (Eustat).

Fuente: Eustat y Dirección de Economía y Planificación.

BJA inkestak argitaratutako informazioaren arabera, 2003ko lehen seihilekoan, EAEko ekonomiak enplegua sortzeari eutsi zion (%0,9 urte arteko tasan eta %1,5 tasa leunduan), baina aurreko seihilekoetan baino erritmo apalagoetan (%5,4 eta %4,9, hurrenez hurren, 2002ko lehen seihilekoan eta %3,8 eta %3,6, hurrenez hurren, 2002ko bigarren seihilekoan). Hiruhilabeteka aztertuta, lehenengoan enplegua %1,8 hazi zen tasa leunduan (2002ko laugarren hiruhilekoan baino 1,1 puntu gutxiago) eta bigarrenean hazkundera %1,1era murriztu zen. Azken emaitza hauetatik eratorzen denez, 2001. urteko erdialdean enpleguan jasotzen hasi ziren gehikuntza tasa altuak, gehienezko balioa (%4,9) 2002ko lehen hiruhilekoan lortu baitzen, amaitu egin direla ematen du.

De acuerdo con la información proporcionada por la PRA, durante el primer semestre de 2003 la economía vasca siguió creando empleo (0,9% en tasa interanual y 1,5% en tasa suavizada), si bien lo hizo a un ritmo notablemente menor al de los semestres anteriores (5,4% y 4,9% respectivamente en el primer semestre de 2002 y 3,8% y 3,6% respectivamente en el segundo semestre de 2002). Por trimestres, durante el primero la ocupación creció un 1,8% en tasa suavizada (1,1 puntos porcentuales menos que el cuarto trimestre de 2002) mientras que en el segundo, el aumento sólo alcanzó el 1,1%. Estos últimos resultados parecen haber puesto fin a los elevados incrementos del empleo que comenzaron a registrarse a mediados del 2001, alcanzando su máximo cíclico (4,9%) en el primer trimestre de 2002.

Lanik gabe dagoen biztanleriak, berriz, portaera negatiboa izan zuen 2003. urtean. Hain zuzen ere, 2003ko lehen hiruhilekoan langabeen kopurua %9,3 areagotu zen eta okertu bigarren hiruhilekoan (%13,2). Bilakaera hau eta 2002. urtekoa oso bestelakoak dira, zeren 2002. urtean langabeen kopuruak nabarmen egin baitzuen behera (%-24,3). Hala eta guztiz ere, alderaketa hau 2002an BJA inkestan egin ziren aldaketek baldintzatzen dute. Aldaketen jatorria Europar Batzordearen 1897/2000 Erregelamendua da. Beraz, erregelamendu hori ezarri izanak serieen homogeneotasuna bertan behera geratzea ekarri zuen eta, aldi berean, langabeen kopurua murriztu zuen eta lan merkatuan parte hartzen ez dutenena areagotu (serie homogeneoan langabeen kopurua %-12,5 gutxitu zen 2002. urtean 2001. urtearen aldean).


En lo que respecta a la evolución de la población parada, ésta tuvo un comportamiento negativo durante el 2003, ya que el número de parados registró un aumento interanual del 9,3% en el primer trimestre de 2003, empeorando en el segundo trimestre (13,2%). Esto contrasta con la intensa reducción del desempleo (-24,3%) que se produjo durante el año 2002. No obstante, la comparación queda en parte condicionada por los cambios metodológicos introducidos en la PRA en el 2002, por la aplicación del Reglamento 1897/2000 de la Comisión Europea, que provocaron una ruptura en la homogeneidad de las series y un efecto contractivo en la población parada y expansivo en la población inactiva (en serie homogénea la reducción de los parados en 2002 frente a 2001 se estima fue del -12,5%).

Azkenik, eta parte hartzaileak eta langabeak 2003ko lehen seihilekoan gehiago zirenez, langabezi tasa %9,1era goratu zen 2003ko lehen hiruhilekoan (2002ko batez besteko tasa baino zortzi hamarren gehiago), baina hobera egin zuen bigarren hiruhilekoan


Finalmente y como consecuencia del avance de la población activa y parada en el primer semestre de 2003, la tasa de paro aumentó hasta el 9,1% en el primer trimestre de 2003 (ocho décimas porcentuales más que la tasa media de 2002), mejorando en el

eta %8,4an kokatu (2002ko batez bestea baino hamarren bat gehiago). Partaidetza tasak, berriz, bilakaera ona izan zuen 2003ko lehen sei hilabeteetan eta %54,5era iritsi zen, 2002ko batez besteko balioa bost hamarrenetan gaindituz.

segundo trimestre hasta situarse en el 8,4% (una décima más que la media de 2002). La tasa de actividad, por su parte, mostró una evolución positiva durante el primer semestre de 2003 alcanzando el 54,5% y superando en cinco décimas porcentuales el valor medio de 2002.



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina
Fuente: Elaboración de la Direc. de Economía y Planificación



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina
Fuente: Elaboración de la Direc. de Economía y Planificación

EAEko barne produktu gordinaren eta BJAk estimatzen duen enpleguaren arteko ohiko ezberdintasunak berriro agertu ziren 2003ko lehen sei hilabeteetan. Izan ere, BPG aldagaia %2,2an egonkor egon den bitartean, BJAk moteltzeko joera bat estimatu du. Hala ere, inkesta honek estimatu duen enplegu hazkunde apala aurreko hiruhilabeteetan baino bateragarriagoa da ekonomiaren jardura mailarekin. Aitzitik, afiliatuen kopurua koherenteagoa izan da BPGren bilakaerarekin eta moteltzeko joera erakutsi du (nahiz eta BJAren enpleguarena baino leunagoa izan). Joera hori 2000. urteko erdialdean hasi zen eta 2003. urtean jarraitu da. Lehenengo hiruhilabeteeko tasa leundua %1,9an zegoen eta bigarren hiruhilabeteen %1,7ra murriztu zen. Azkenik, eta lan merkatua aztertzeko aipatu diren bi iturri horiek ez bezala, BAI inkestak enplegua suspertzeko joera estimatu du EAERako, lehen hiruhilabeteen %1,8ko hazkunde eta bigarrenen %2,9koa erakutsi baititu.

Las habituales discrepancias entre la evolución estimada del PIB vasco y la de la ocupación según la PRA se mantuvieron en el primer semestre de 2003, ya que al perfil de estabilidad en el 2,2% para el PIB le correspondió un perfil de desaceleración en la PRA, si bien el moderado avance del empleo según esta encuesta resulta más coherente que en trimestres anteriores con el nivel de actividad que refleja la economía. Por el contrario, la evolución del número de afiliados fue más coherente con la del PIB, y mostró encontrarse en una fase de desaceleración (aunque mucho más suave que la ocupación de la PRA) que se inició a mediados de 2000 y que ha continuado en el 2003, siendo la tasa suavizada del primer trimestre del 1,9% mientras que en el segundo trimestre se situaba en el 1,7%. Por último y al contrario que las dos fuentes anteriores de análisis del mercado de trabajo, la EPA para el País Vasco definió un perfil de aceleración en la creación de empleo, registrando un aumento interanual de 1,8% en el primer trimestre y del 2,9% en el segundo.

Estatistiken artean dauden ezberdintasun horiek alde batera utzita eta analisia Eustatek egindako BJA inkestaren datuetara mugatuz, adierazi behar da enpleguaren hazkunde txikiagoaren arrazoiak gizonen enpleguak izan duen jaitsiera garrantzitsuan datzala, 1994. urtetik hona bigarren hiruhilabetez jarraian urteko tasa leundu negatiboa jaso baitzuen (%-0,4 lehen hiruhilabeteetan eta %-1,3 bigarrenetan). Portaera hori ez da harrigarria kontuan hartzen badugu industriaren enpleguak izan duen etengabeko okertzea eta ekonomiaren arlo horretan gizonen pisua emakumeena baino askoz ere handiagoa dela. Horren ondorioz, emakumeen enpleguaren bizitasuna izan da enplegu orokorraren hazkunde neurrikoa ahalbidetu duena. Hain zuzen ere, lehen hiruhilabeteen emakumeen lanpostuak %4,9 gehitu ziren urte arteko tasan eta bigarren hiruhilabeteen hazkunde erritmo hori jaitsiera txiki bat izan zuen (bost hamarren txikiagoa izan zen).

Obviando estas discrepancias, y restringiendo el análisis a los datos suministrados por la encuesta PRA elaborada por Eustat, el menor avance del empleo tuvo su origen en el importante deterioro del empleo masculino, que por segundo trimestre consecutivo desde 1994 registró una tasa suavizada interanual negativa (-0,4% en el primer trimestre y -1,3% en el segundo). Este comportamiento no resulta extraño si tenemos en cuenta el continuo empeoramiento de la ocupación industrial donde el peso relativo de la población masculina es notablemente mayor al de la femenina. Consecuentemente, ha sido el dinamismo del empleo femenino el que ha permitido el moderado avance de la ocupación global, ya que durante el primer trimestre, el aumento interanual de su ocupación era de 4,9% mientras que en el segundo trimestre apenas sufría un ligero descenso en su ritmo de crecimiento (cinco décimas porcentuales menos).

Ekonomiaren arloen arabera, industriak areagotu zuen lanpostuak galtzeko joera (%-3,3 bigarren hiruhilabeteetan eta %-3,1 lehenengoan) eta zerbitzuek eta eraikuntzak, enplegua sortu arren, aurreko

Por sectores, la industria aceleró la destrucción de empleo (-3,3% en el segundo trimestre frente a -3,1% en el primero), mientras que el sector servicios y la construcción, pese a mostrar ambos

hiruhilabeteetako moteltzeari jarraitu zioten. Zehazkiago adierazita, eraikuntzako enplegua %5,3 areagotu zen bigarren hiruhilekoan, lehenengoan baino puntu bat gutxiago baina oraindik tasa altuetan mantenduz. Zerbitzuen enpleguak, berriz, eraikuntzak baino beherakada handiagoa izan zuen eta lehen hiruhilabeteen %2,6ko hazkunde tasa lortu ondoren, bigarrean %1,7 izan zuen, aurreko hiruhilabeteetako gehikuntza tasa altuen aldean. Azkenik, lehen arloak gehieneko balioa 2003ko lehen hiruhilekoan lortu zuela (%26,6) ematen du, bigarrean (%24,5) apalaldi arina izan zuelako. Dena dela, emaitza horiek oso positiboak dira, bereziki kontuan hartzen bada aurreko urteko epe berean arlo hori enplegua galtzen ari zelako.

Adinaren arabera, enpleguaren hazkunde erritmoaren jaitsiera gazteen artean nabaritu zen bereziki eta urte arteko tasa %-7,5 izan zen adin tarte horretan 2003ko lehen seiuhilekoan. Bilakaera hori eta 2002. urtean izan zuena oso bestelakoak dira, zeren garai hartan adin tarte horren enplegua %5,3 hazi baitzen batez beste urte arteko tasan neurtuta. Beste aldetik, 25 eta 44 urte bitarteko landunen kopurua %0,1 baino ez zen gehitu bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan, eta lehenengo aldiz 1996. urtetik, urte arteko jaitsiera arina (%-0,1) jaso ondoren. Azkenik, 45 urtetik gorako landunena izan zen emaitza positiboa eta tamainakoa lortu zuen bakarra, urte arteko tasan %4,8ko hazkundera izan baitzuen.

Langabeei dagokionez, azpimarratu behar dira gizon langabeen hazkunde erritmoak urte arteko tasan izan duen bizkortzea (%21,1 bigarren hiruhilekoan aurreko hiruhilabeteen %17,4aren aldean) eta emakume langabeen bilakaera gorabeheratsua, azken hiruhilabeteetan hazkundera eta beherakadak txandaka jaso dituelako. Horrela izan da ere, gizonen langabezi tasak hobera egin zuen bigarren hiruhilekoan (%6,2) lehenengo hiruhilabetearen aldean (%7,1), langabeen kopurua aurreko hiruhilabetearen aldean %13 gutxitu zelako. Emakumeen langabezi tasa, berriz, hiru hamarren murriztu zen eta %11,5ean kokatu. Adin taldeen arabera, gazteen langabezi tasak nabarmen egin du okerrera 2003. urtean 2002. urtearen aldean eta 45 urtetik gorakoena, ordea, zertxobait hobetu da.

incrementos en el empleo, mantuvieron el perfil de desaceleración de los trimestres anteriores. Así, el avance de la construcción en el segundo trimestre fue del 5,3%, un punto porcentual inferior al del trimestre anterior, aunque en todo caso ha conseguido mantenerse en una tasa elevada. Por su parte, el sector servicios sufrió una erosión mayor que la construcción y registró en el primer trimestre una tasa de crecimiento de 2,6% y una tasa de 1,7% en el segundo, frente a los elevados incrementos de trimestres anteriores. Por último, el sector primario parece que alcanzó un máximo cíclico en el primer trimestre de 2003 (26,6%) y luego mostró una ligera desaceleración en el segundo (24,5%), resultados en todo caso muy positivos, más aún teniendo en cuenta que en el mismo periodo del año anterior este sector estaba perdiendo empleo.

Por edades, el empleo juvenil fue el más afectado por el descenso en el ritmo de crecimiento de la ocupación al registrar una tasa interanual negativa de -7,5% en el primer semestre de 2003, evolución que contrasta con el buen comportamiento que ofreció este segmento de edad durante el 2002, cuando creció a una tasa interanual media del 5,3%. En lo que respecta a los ocupados con una edad comprendida entre los 25 y los 44 años apenas crecieron un 0,1% en el segundo trimestre, después de sufrir por primera vez desde el año 1996 un leve descenso interanual (-0,1%) en el anterior trimestre. Finalmente, el grupo de los empleados de más de 45 años fue el único que cosechó un balance positivo apreciable al aumentar su número en un 4,8% interanual.

Respecto a la población parada, cabe destacar la aceleración en el ritmo de crecimiento interanual de la población parada masculina (21,1% en el segundo trimestre frente al 17,4% del primero) y el comportamiento errático de la población parada femenina con crecimientos y decrecimientos alternativos en los últimos trimestres. Pese a todo ello, la tasa de paro masculina mejoró en el segundo trimestre (6,2%) con respecto al primer trimestre (7,1%) debido a la caída intertrimestral del 13% en el número de parados, mientras que la tasa de paro femenina se redujo en tres décimas porcentuales, hasta situarse en el 11,5%. Por tramos de edad, la tasa de paro juvenil en el 2003 empeoró ostensiblemente respecto al 2002, mientras que la de los mayores de 45 años mejoró moderadamente.

8. taula / Cuadro nº 8
Lan merkatuaren aldagai nagusiak
Principales variables del mercado de trabajo

	Urteko tasa leundua		Tasa anual suavizada				
	Milaka lagun Miles personas		2002		2003		
	II 2003	III	IV	I	II		
Parte hartzaileak	977,7	3,0	2,8	2,3	1,6	Población activa	
Gizonak	568,1	1,4	1,2	0,6	-0,3	Hombres	
Emakumeak	409,6	5,2	5,0	4,7	4,2	Mujeres	
Landunak	895,2	4,3	2,9	1,8	1,1	Población ocupada	
Gizonak	532,6	2,4	0,9	-0,4	-1,3	Hombres	
Emakumeak	362,6	7,2	6,0	5,1	4,8	Mujeres	
Lehen arloa	19,1	11,5	22,6	26,6	24,5	Primario	
Industria	246,7	-2,6	-2,8	-3,1	-3,3	Industria	
Eraikuntza	85,4	8,2	7,8	6,3	5,3	Construcción	
Zerbitzuak	544,1	6,8	4,4	2,6	1,7	Servicios	
Langabeak	82,6	-9,7	1,1	8,5	10,8	Población parada	
Gizonak	35,5	-12,9	4,9	17,4	21,1	Hombres	
Emakumeak	47,1	-7,5	-1,8	2,0	-0,1	Mujeres	
Langabezi tasa	8,4%	----	----	----	----	Tasa de paro	

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Fuente: Elaboración de la Dirección de Economía y Planificación a partir de datos de Eustat.

Partaidetzari dagokionez, lan merkatuan parte hartzen duten emakumeen kopurua %44,3ra iritsi zen bigarren hiruhilekoan, lehenengo hiruhilabeteko tasa sei hamarrenetan gaindituz eta aurreko urteko epe bereko tasa 1,8 puntutan gehituz. Gizonen partaidetza tasak, ordea, okerrera egin zuen bigarren hiruhilekoan eta lau hamarren galdu zituen lehenengo hiruhilekoaren aldean (%65,8), 2002ko bigarren hiruhilabetean izandako emaitza bera (%65,4) berriro lortuz.

Azkenik, jasotako lan kontratu berrien bilakaera positiboa izan zen bigarren hiruhilekoan, urte arteko tasan %3,1 gehitu zirelako. Hazkunde hori BJA inkestak enplegurako estimatu duena baino askoz ere handiagoa da, baina bi estatistiketan garbi ikusten da moteltzeko joera 2003. urtean. Kontratu motei dagokionez, kontratu mugagabeak (berriak eta mugagabe bihurtuak) %-5,2 gutxitu ziren aurreko urteko hiruhilabete beraren aldean eta aldi baterakoak, ordea, %3,5 areagotu. BJAren arabera, kontratu finkoa duten soldatapekoen kopurua %0,4 gutxitu zen urte arteko tasan eta aldi baterako langileena %0,8 hazi. Bilakaera horien ondorioz, soldatapekoen aldibaterakotasun tasa %29,4an kokatu zen bigarren hiruhilekoan, hots aurreko hiruhilekoan baino 1,3 puntu gorago eta 2002. urteko epe berean baino lau hamarren altuago dago.

En el análisis de la actividad, la tasa de actividad femenina se situó en el 44,3% en el segundo trimestre, seis décimas porcentuales más que el primer trimestre y 1,8 puntos porcentuales más que en el mismo periodo del año anterior. La tasa de actividad masculina, por su parte, empeoró en el segundo trimestre ya que perdió cuatro décimas respecto al primer trimestre (65,8%) y repitió el resultado obtenido en el segundo trimestre de 2002 (65,4%).

Finalmente, la evolución de los nuevos contratos registrados fue positiva ya que estos aumentaron un 3,1% interanual en el segundo trimestre, un avance sustancialmente mayor al reflejado por la PRA para la ocupación, pero mostrando eso sí un perfil de desaceleración semejante al de la PRA en el 2003. Respecto a las modalidades de contrato, los indefinidos (nuevos y convertidos) tuvieron una disminución del -5,2% respecto al mismo trimestre del año anterior, mientras que los temporales crecieron un 3,5%. Según la PRA, los asalariados fijos sufrieron una caída del 0,4% interanual frente al crecimiento del 0,8% de los temporales, de tal manera que la tasa de temporalidad de la población asalariada se situó en el 29,4%, 1,3 puntos porcentuales más que en el trimestre anterior y cuatro décimas porcentuales más que en el mismo periodo de 2002.


2.2.4. Prezioak, kostuak eta soldatak
Precios, costes y salarios

Kontsumoko prezioek moteltzeko joera erakutsi zuten EAEn 2003. urteko lehen erdian, aurreko urte osoan izan zuten goranzko bilakaerarekin alderatzen bada. Hori horrela izateko arrazoien artean aipatu beharko dira euroa indarrean sartzeko 2002. urtean ekarri zituen gorakadak desagertu izana eta euroak berak dolarraren aldean irabazi duen balioa.

Los precios de consumo mostraron en el País Vasco una trayectoria de desaceleración durante la primera parte del año 2003 si se comparan con la evolución más alcista que reflejaron durante el año anterior. A ello ha podido contribuir, en alguna medida, la desaparición de los efectos alcistas derivados de la introducción del euro en 2002 y a la apreciación del euro frente al dólar.

Otsaila arte, kontsumoko prezioen indizea aurreko urteko batez besteko balioaren antzeko tasetan ibili zen, Irakeko gerrak sorturiko ziurgabetasunaren ondorioz petrolioaren prezioa igo zelako. Baina urteko bigarren hilabetearen ondoren, petrolioaren salneurriak behera egin zuen, Irakeko gatazka belikoa azkar amaituko zelako ustean. Hori dela eta kontsumoko prezioen indizea moteltzen hasi zen, maiatzean %2,5ean egonkortu arte. Zentzu horretan, kontsumoko prezioen jaitsiera nabarmenagoa izan zen 2003. urteko bigarren hiruhilekoan.

Hasta el mes de febrero el índice de precios de consumo se movió en tasas interanuales similares al valor medio del año anterior en consonancia con la subida del precio del petróleo ante la incertidumbre por la guerra en Irak. Pero a partir del segundo mes del año, los precios del crudo comenzaron a caer ante la rápida resolución del conflicto bélico en Irak y esto hizo que el índice general de precios de consumo se fuera desacelerando hasta estabilizarse en el 2,5% a partir del mes de mayo. En este sentido, la disminución de los precios de consumo fue bastante más acentuada en el segundo trimestre de 2003.



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina
Fuente: Elaboración de la Direc. de Economía y Planificación

2003ko lehen hiruhilekoan urte arteko gehikuntza, batez beste, %3,5 izan ondoren, bigarren hiruhilekoan %2,6 hazi ziren, batez beste, kontsumo prezioak, maiatzean eta ekainean %2,5ean kokatu zirelarik. Gehikuntza tasa horiek hiru hamarren apalagoak izan ziren Estatu osoan jasotako urte arteko hazkundeak baino, hala hiruhileko batean nola bestean. Hala eta guztiz ere, bigarren hiruhilekoan izandako beherakada garrantzitsua izan arren, balio horiek oraindik Europako Banku Zentralak ezarritako helburuaren eta eurogunearen batez besteko balioaren oso gaineretik daude.

Tras un incremento interanual medio durante el primer trimestre de 2003 del 3,5%, los precios de consumo crecieron un 2,6% de media en el segundo trimestre, situándose en el 2,5% en los meses de mayo y junio. Estos incrementos fueron inferiores en tres décimas en cada uno de los dos trimestres a los aumentos interanuales registrados en el conjunto del Estado. No obstante, a pesar del considerable recorte de los precios durante el segundo trimestre, dichos valores siguieron estando claramente por encima tanto del valor objetivo fijado por el BCE como de la media de la zona euro.

Urteko bigarren hiruhilekoan igoera handienak izan zituzten atalak irakaskuntza (%4,9), lehen hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago hazi baitzen, jantziak eta oinetakoak (%4,7), bi puntu gehiago hazi baita, beherapenak amaitu zirelako eta udaberri-udako denboraldi berriaren prezioen portaerarengatik, eta janariak eta alkoholik gabeko edariak (%3,7), baina atal honek sei hamarrenetan murriztu zuen aurreko hiruhilabeteko tasa. Aitzitik, gutxien hazi zirenak aisia eta kultura (%0,0), aurreko hiruhilekoan baino sei hamarren beherago, eta garraioa (%0,9) izan ziren. Azken hau urteko lehen hiru hilabeteetan baino 3,7 puntu gutxiago garestitu zen, erregaien salneurriak jaitsi zirelako. Komunikazioen atalak bere tasa negatiboa murriztu zuen, lehen hiruhilabeteko %-3,7tik bigarreneko %-2,8ra.

Los grupos más inflacionistas durante el segundo trimestre del año fueron enseñanza (4,9%), creciendo una décima más que el primer trimestre, vestido y calzado (4,7%), con dos puntos más, debido a la conclusión de las rebajas y al comportamiento de los precios en la nueva temporada de primavera-verano, y alimentación y bebidas no alcohólicas (3,7%), aunque este grupo redujo seis décimas su tasa respecto al trimestre anterior. Por el contrario, los que menos crecieron fueron ocio y cultura (0,0%), con seis décimas menos, y transporte (0,9%), 3,7 puntos menos que en los tres primeros meses debido a la bajada de los precios de los carburantes. El grupo comunicaciones redujo su tasa negativa hasta el -2,8% desde el -3,7% del primer trimestre.

9. taula / Cuadro nº 9
EAEko kontsumo prezioen indizea
IPC del País Vasco

Urte arteko aldakuntza tasak

Tasas de variación interanual

	201eko batez b. media 2001	2002ko batez b. media 2002	2003ko I hiruhilekoa I trim. 2003	2003ko II hiruhilekoa II trim. 2003	
Indize orokorra	3,9	3,7	3,5	2,6	Indice general
Jan. eta alkoholik gabeko edariak	5,4	4,2	4,3	3,7	Aliment. y bebidas no alcohólicas
Edari alkoholdunak eta tabakoa	3,0	5,2	5,3	2,0	Bebidas alcohólicas y tabaco
Jantziak eta oinetakoak	2,8	5,1	2,7	4,7	Vestido y calzado
Etxebizitza	4,3	3,0	3,4	2,8	Vivienda
Etxeko hornidura	4,4	2,1	1,5	1,8	Menaje
Medikuntza	2,2	3,4	2,5	1,9	Medicina
Garraioa	1,0	2,3	4,6	0,9	Transporte
Komunikazioak	-0,7	-2,9	-3,7	-2,8	Comunicaciones
Aisia eta kultura	3,8	2,6	0,6	0,0	Ocio y Cultura
Irakaskuntza	4,7	3,9	4,8	4,9	Enseñanza
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	5,1	5,2	4,7	3,2	Hoteles, cafés y restaurantes
Besteak	5,5	5,1	3,4	3,3	Otros

Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Fuente: Instituto Nacional de Estadística (INE).

Industri prezioei dagokienez, indize orokorrak beherakada garrantzitsua izan zuen bigarren hiruhilekoan, urteko lehen hilabeteetan gorantz jo ondoren. Hain zuzen ere, apirila eta ekaina bitartean %0,9ko hazkundera jaso zuen urte arteko tasan, lehen hiruhilabeteko %3,3aren aldean. Portaera honen oinarrian, bitarteko ondasunen bilakaera dago, lehenengo hiruhilekoan asko igo ondoren, bigarren hiruhilekoan nabarmen apaldu zirelako eta %0,1 baino ez zirelako hazi. Beraz, urteko lehen hiruhilekoan baino 4,1 puntu gutxiago garestitu ziren bigarrenen. Esan behar da petrolioaren fintzeak paper garrantzitsua jokatu zuela denbora horretan, bigarren hiruhilekoan lehenengoan izan zuen portaera zeharo aldatu zuelako eta urte arteko aldakuntza tasa negatiboak jasotzen hasi zelako. Neurri txikiagoan, kontsumoko ondasunek ere indize orokorraren apaltzean lagundu zuten %3,3 hazi zirelako, hots, lehen hiruhilekoan baino puntu oso bat gutxiago gehitu zirelako. Aitzitik, ekipamendurako ondasunen prezioek bost hamarren egin zuten gora eta urte arteko gehikuntza %2,0ra iritsi zen.

En lo que se refiere a los precios industriales, el índice general sufrió un considerable recorte en el segundo trimestre tras haber repuntado en los tres primeros meses del año. Así, entre abril y junio registró un crecimiento interanual del 0,9% frente al 3,3% del primer trimestre. Este comportamiento se explica por la evolución de los bienes intermedios, que se desaceleraron claramente en el segundo trimestre, al crecer sólo un 0,1%, esto es, 4,1 puntos porcentuales menos que en el primer trimestre del año, período en el que mostraron un perfil expansivo, y donde el refino de petróleo jugó un papel destacado al invertir en el segundo trimestre el comportamiento anterior y registrar tasas de variación interanual negativas. En menor medida, los bienes de consumo también contribuyeron a la ralentización del índice general al crecer un 3,3%, un punto porcentual menos que en el primer trimestre. Por el contrario, los bienes de equipo repuntaron cinco décimas hasta situarse en el 2,0% de incremento interanual.

10. taula / Cuadro nº 10
EAEko industri prezioen indizea
IPRI del País Vasco

Urte arteko aldakuntza tasak

Tasas de variación interanual

	2001eko batez bestea media 2001	2002ko batez bestea media 2002	2003ko I hiruilekoa I trim. 2003	2003ko II hiruilekoa II trim. 2003	
Indize orokorra	0,7	0,3	3,3	0,9	Índice general
Kontsumo ondasunak	4,3	2,8	4,3	3,3	B. de consumo
Ekipo ondasunak	0,9	0,8	1,5	2,0	B. de equipo
Bitarteko ondasunak	-1,0	-0,7	4,2	0,1	B. Intermedios

Iturria: Eustat.

Fuente: Eustat.

Kostuei dagokien eta INEk eskaintzen dituen lan kostuen indizea izeneko estatistikaren datuen arabera, aurtengo bigarren hiruilekoan batez besteko lan kostua langileko eta hilabeteko %3,7 gehitu zen EAEn aurreko urteko hiruhilabete beraren aldean. 2003ko lehen hiruhilabeteko igoera, berriz, %3,0 izan zen. Zazpi hamarrenetako gorakada horren arrazoia soldaten atalaren eta, neurri handiagoan, bestelako kostuen igoeran datza. Hain zuzen ere, soldaten kostua %3,4 hazi zen, lehen hiruhilabeteko %2,9aren aldean. Bestelako kostuak izenekoa, soldataz bestelako ordainketak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak barne hartzen baititu, %4,4 areagotu zen bigarren hiruilekoan, lehenengo hiruhilabeteko %3,4aren aldean.

Por lo que respecta a los costes y según los datos del índice de costes laborales ofrecidos por el INE, en el segundo trimestre de este año el coste laboral medio por trabajador y mes se incrementó un 3,7% en el País Vasco respecto al mismo trimestre del año anterior, frente al 3,0% del primer trimestre de 2003. Este repunte de siete décimas se debió a la aceleración tanto del componente salarial como del componente de otros costes, pero en mayor medida de este último. Así, el coste salarial creció un 3,4% frente al 2,9% del primer trimestre, mientras que el componente de otros costes, que engloba las percepciones no salariales y las cotizaciones a la Seguridad Social, aumentó un 4,4% en el segundo trimestre frente al 3,4% del primero.

Hitzarmen kolektiboen estatistikari dagokionez, ekainaren amaieran 182.010 langilek zeukaten lan hitzarmena sinatuta. Hilabete horren amaiera adostutako soldata igoera %3,8 zen, 2002. urteko gehikuntza baino hamarren bat txikiagoa baita. Enpresa eta sektore mailan berdintsua izan zen adostutako igoera eta, beraz, bietan gaintzen da kontsumoko prezioen indizearen bigarren hiruhilabeteko batez besteko hazkundea 1,2 puntutan. Azkenik, ekainaren amaieran indarrean zeuden lan hitzarmen guztietatik %82 enpresakoak ziren eta gainontzeko guztiak sektore mailakoak. Hitzarmen horien lan baldintzak dituzten langile guztietatik %81,5 sektoreko lan hitzarmena zuten.

En lo referente a la estadística de convenios colectivos, el número de trabajadores afectados por convenios colectivos a finales de junio fue de 182.010. El incremento salarial pactado al final de dicho mes fue del 3,8%, una décima menos que el incremento de 2002, prácticamente el mismo en los dos ámbitos (empresa y sector), es decir, 1,2 puntos porcentuales más que el incremento interanual medio para el segundo trimestre del índice de precios de consumo. Finalmente, el 82% del total de número de convenios vigentes a últimos de junio correspondió a convenios de empresa, siendo el resto sectoriales. En cuanto al número de trabajadores afectados, el 81,5% perteneció al ámbito sectorial.

11. taula / Cuadro nº 11
Hitzarmenetan itundutako soldaten gehikuntza
Incremento salarial pactado en convenio

	1998	1999	2000	2001	2002	2003 (*)	
Indarrean dauden hitzarmenak:	2,4	2,5	3,9	4,5	3,9	3,8	Convenios en vigor:
Urtean zehar izenpetuak	2,6	2,4	4,0	4,4	3,8	5,0	Firmados durante el año
Negoiazio esparruaren arabera:							Por ámbito de negociación:
Sektoreko hitzarmenak	2,4	2,4	3,8	4,5	3,9	3,8	Convenios sectoriales
Enpresako hitzarmenak	2,4	2,6	3,9	4,1	4,0	3,8	Convenios de empresa

(*) 2003ko ekaina arte izenpetutako lan hitzarmenak

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.


(*) Convenios registrados hasta el mes de junio del 2003.

Fuente: Consejo de Relaciones Laborales.


2.2.5. Kanpo saldoa eta lehiakortasuna
Saldo exterior y competitividad

Kanpo saldoak EAEko ekonomiaren hazkunderari 2003ko lehen seihelekoan egin zion ekarpen negatiboa hamarren bakarrean estimatu da, bi hiruhelekoetan portaera berdina izan zuelarik. Emaizta honek nolabaiteko egonkortasuna iradoki du BPGren hazkunderari eginiko ekarpen negatiboan, 2002ko bigarren seihelekoaren ekarpen bera delako eta 2002ko lehen hiruhelekoetako lau hamarrenetan hobetu duelako. Izan ere, seiheleko horretan kanpo saldoak bost hamarren kendu zizkion ekonomiaren hazkunderari. Hobekuntza txiki hori munduko merkataritzak 2002ko bigarren seihelekoan hasitako eta, indar gutxiagorekin, 2003ko lehen seihelekoan jarraitutako susperraldi neurriko testuinguru batean gertatu da, iazko hasieran merkataritza salerosketak nabarmen jaitsi eta gero. Izan ere, Munduko Merkataritza Erakundeak pasa den abuztuan munduko merkataritzaz egin zituen aurreikuspenek (Munduko Merkataritzako Txostena 2003) %3ko hazkundera edo txikiagoa iragarri dute 2003. urterako. Hazkunde hori 2002. urteko gehikuntza baino puntu erdi bat bakarrik gehiago da eta, edozein kasutan, 1990eko hamarkadan jasotako batez besteko tasa baino askoz ere txikiagoa da.

En el primer semestre de 2003, la aportación estimada del saldo exterior al crecimiento de la economía vasca se situó en una décima porcentual negativa, con una distribución uniforme en ambos trimestres. Este resultado supuso una estabilización de la contribución negativa al crecimiento del PIB respecto al segundo semestre de 2002 y una mejora de cuatro décimas porcentuales respecto al primer semestre de 2002, en el cual el sector exterior sustrajo cinco décimas al crecimiento de la economía. Esta leve mejora se produjo en un contexto de moderada recuperación del comercio mundial iniciada en el segundo semestre de 2002 y que tuvo su continuidad en el primer semestre de 2003, aunque con menor fuerza, todo ello tras la intensa contracción de los flujos comerciales a principios del año pasado. De hecho, las proyecciones de comercio mundial efectuadas el pasado mes de agosto por la Organización Mundial de Comercio (Informe sobre el Comercio Mundial 2003) arrojan un crecimiento del 3% o menos para 2003, apenas medio punto porcentual superior al aumento de 2002 y, en todo caso, notablemente inferior a la tasa media registrada en el decenio de 1990.



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina
Fuente: Elaboración de la Direc. de Economía y Planificación



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina
Fuente: Elaboración de la Direc. de Economía y Planificación

Aurtengo lehen seihelekoan, atzerrira zuzendutako esportazioak guztira %5,9 gehitu ziren 2002ko lehen seihelekoaren aurrean (garai horretakoak, berriz, 2001eko lehen seihelekoak baino %-5,5 apalagoak izan ziren), 2002ko bigarren seihelekoak urte arteko tasan %6,5 hazi ziren bitartean. Beste aldetik, 2003ko lehen seihelekoan atzerritik ekarritako inportazioak guztira %6,3 areagotu ziren urte arteko tasan (2002ko lehen seihelekoak %-3,1 gutxitu ziren inportazio horiek urte arteko tasan), 2002ko bigarren seihelekoak %7,1 hazi ziren bitartean. Aldakuntza tasa horien ondorioz, atzerriarekiko saldo nominala ondasunetan ia 789 milioi eurokoa izan zen 2003ko lehen seihelekoan, 2002ko lehen seiheleko 764 milioi eurotik gorako saldoaren aldean.

Durante el primer semestre de este año, las exportaciones totales al extranjero aumentaron el 5,9% frente al primer semestre de 2002 (las de este último período habían descendido el -5,5% respecto a las del primer semestre de 2001), mientras que en el segundo semestre de 2002 crecieron un 6,5% interanual. Por su parte, las importaciones totales del extranjero realizadas en el primer semestre de 2003 se incrementaron el 6,3% interanual (las del primer semestre de 2002 disminuyeron el -3,1% interanual), frente al crecimiento del 7,1% interanual del segundo semestre de 2002. Como consecuencia de estas variaciones, el saldo nominal en bienes con el extranjero del primer semestre de 2003 fue de casi 789 millones de euros frente a los más de 764 millones de euros del primer semestre de 2002.

Azken bi seihelekoetan esportazioen hazkunde tasetan jaso den susperraldia testuinguru zail batean gertatu da. Izan ere, ekonomia nagusien kanpo eskariak ahul daude eta euroak balioa irabazi du (%23 handitu du bere balioa 2003ko lehen seihelekoan), EAEko ekoizkinekin lehiakortasuna eta, oro har, Europar Batasunekoena, hala beren mugen barruan nola kanpoan, kaltetuz. Aurreko guztiari gehitu behar zaio, EAEko ekonomiari dagokionez, Europako herrialdeen aldean gure ekonomia behin eta berriro jasotzen ari den inflazio tasa altuagoa.

Este repunte en las tasas interanuales de crecimiento de las exportaciones registrado en los dos últimos semestres se produjo pese a un entorno exterior de débil dinamismo de las demandas externas de las principales economías y frente a un contexto de fuerte apreciación del euro (23% en el primer semestre de 2003) que perjudicó la competitividad de los productos vascos y, en general, de la UE, tanto dentro de sus fronteras como fuera de ellas. A todo esto, es preciso añadir, en el caso de la economía vasca, los desfavorables diferenciales de inflación que viene manteniendo con respecto a sus homólogas europeas.

Beste aldetik, ondasunen inportazioetan izandako hobekuntza EAeko ekonomiaren hazkunde erritmoan hauteman den susperraldi arinak eragin du. Bereziki, industri arloaren jarduerak eta ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioak izan duten bizkortzeak eragin dute inportazioen hobekuntza. Era berean, 2003ko lehen sei hilekoan 2002ko bigarren sei hilekoaren aldean urte arteko hazkunde txikiagoa izatea esportazioen antzeko portaerarekin egon daiteke lotuta, biek harreman estuak dituztelako.

Por su parte, la mejora en las importaciones de bienes estuvo favorecida por el ligero repunte en el ritmo de crecimiento de la economía vasca, en especial por la recuperación de la actividad en el sector industrial y de la inversión en los bienes de equipo. Asimismo, el menor crecimiento interanual del primer semestre de 2003 respecto al logrado en el segundo de 2002 pudo estar relacionado con el comportamiento similar de las exportaciones dado el grado de vinculación existente entre ambas.

12. taula / Cuadro nº 12
Merkatu garrantzitsu batzuen ondasun inportazioa (*)
Importaciones de bienes por algunos mercados importantes (*)

Urte arteko aldakuntza tasak

Tasas de variación interanual

	2001				2002				2003		
	I	II	III	IV	I	II	III	IV	I	II	
Alemania EAetik	11,9 -12,7	6,5 -9,9	-1,4 2,2	-9,8 -11,1	-8,5 -6,4	-6,4 1,8	-3,5 8,7	0,8 5,4	7,5 13,3	1,6 7,6	Alemania desde el País Vasco
Frantzia EAetik	11,0 1,3	3,8 21,9	-2,5 -0,6	-11,7 -1,2	-6,1 3,3	-4,4 -11,8	-1,6 15,7	0,9 3,6	-0,8 9,7	-4,9 4,2	Francia desde el País Vasco
Italia EAetik	12,7 4,0	7,3 10,2	-2,0 0,5	-8,6 -13,6	-7,0 -12,3	-6,8 -14,5	-2,4 4,4	5,6 18,4	3,3 12,7	1,9 38,8	Italia desde el País Vasco
Erresuma Batua EAetik	11,9 -1,6	5,0 26,7	-1,4 15,8	-5,5 3,2	-4,6 21,5	-1,2 -1,3	1,9 5,6	1,7 5,9	0,8 4,6	-1,4 6,4	Reino Unido desde el País Vasco
AEB EAetik	5,6 -3,3	-4,0 26,4	-11,2 -15,5	-14,6 -24,2	-11,3 2,1	0,4 -27,9	6,6 -9,0	13,0 6,7	14,1 13,6	6,7 16,7	EE.UU. desde el País Vasco

(*) Unean uneko prezioetan.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, Eustat eta OCDE.

(*) A precios corrientes.

Fuente: Dirección de Economía y Planificación, Eustat y OCDE.

Estatuarekin egindako salerosketei dagokienez, eta INEK Espainiako ekonomiarentzat 2002ko laugarren hiruhilekoan estimatu zuen susperraldiarekin bat ez etorritz, eskura dauden datuek okerragotzea erakutsi dute salmenten aurreikuspenetan 2002. urte osorako, 2003ko lehen sei hilekoan bilakaera kezagarri hori areagotu zelarik.

Respecto a los intercambios con el resto del Estado, y en contradicción con la reactivación estimada por el INE para la economía española a partir del cuarto trimestre de 2002, los datos disponibles mostraron un empeoramiento de las perspectivas de ventas en todo el año 2002, evolución que se intensificó en el primer semestre de 2003.

13. taula / Cuadro nº 13
Enpresen iritziak (*)
Opiniones empresariales (*)
EAEko industriaren eskari zorroa
Cartera de pedidos de la industria vasca

	Guztira Total	Barne merkatua Mercado Interior	Atzerria Extranjero	
2001 (batez bestea)	-14	-15	-15	Año 2001 (media)
I hiruhilekoa	-17	-17	-16	I trimestre
II hiruhilekoa	-6	-13	-7	II trimestre
III hiruhilekoa	-11	-9	-13	III trimestre
IV hiruhilekoa	-23	-20	-24	IV trimestre
2002 (batez bestea)	-23	-24	-26	Año 2002 (media)
I hiruhilekoa	-21	-24	-24	I trimestre
II hiruhilekoa	-20	-23	-27	II trimestre
III hiruhilekoa	-19	-20	-23	III trimestre
IV hiruhilekoa	-32	-31	-28	IV trimestre
2003 (batez bestea)	-29	-29	-31	Año 2003 (media)
I hiruhilekoa	-24	-23	-26	I trimestre
II hiruhilekoa	-34	-35	-36	II trimestre

(*) Enpresarien erantzunen saldo garbia (muturretako ehunekoen arteko aldea).

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Zientzia eta Teknologia Ministerioaren datuetan oinarrituta.

(*) Saldo neto de respuestas empresariales (diferencia entre porcentajes extremos).

Fuente: Elaboración de la Dirección de Economía y Planificación según datos del MCyT.

2003ko lehen sei hilekoan atzerriarekin izan diren salerosketak ekoizkinean arabera aztertuta, energiaren bestelako produktu gehien salmentek nabarmen egin zuten gora, salbuespenak kautxua eta plastikoa (%-1) eta ekipamendurako ondasunen hazkunde neurrikoa (%2,7) izan direlarik, azken atal honetan garraio materialak jaso zuen beherakadaren ondorioz (%-5). Inportazioetan ere, esportazioen antzeko bilakaera gertatu da, hots, gehikuntza handiak oro har, baina bi salbuespenekin, alde batetik, paperarena (%-2,5) eta, beste aldetik, berriro ekipamendurako ondasunena (%0,2), oraingoan ere garraio materialaren portaera txarraren ondorioz (%-1,6).

Geografi guneen arabera, OCDEko herrialdeetara bidalitako energiaren bestelako esportazioak %7,5 gehitu ziren. Herrialde horien artean, Europar Batasunera bidalitakoak %9,8 areagotu ziren eta OCDEko gainontzeko herrialdeetarakoak %3,2 murriztu. Inportazioei dagokienez, Europar Batasunetik ekarritakoak %6,8 gehitu ziren eta OCDEko gainontzeko herrialdeetatik iritsitakoak %16,4, guztira OCDEtik inportatutakoa %8 haziz.

En el análisis por productos de los intercambios con el extranjero habidos en el primer semestre de 2003, las ventas de la mayoría de productos no energéticos vascos registraron aumentos importantes, con las excepciones de caucho y plástico (-1%) y el moderado incremento de los bienes de equipo (2,7%), debido al deterioro registrado por el componente de material de transporte (-5%). En el apartado importador, se reprodujo una evolución similar a la de las exportaciones, es decir, aumentos fuertes en general, exceptuando el papel (-2,5%) y una vez más, los bienes de equipo (0,2%) repitiéndose dentro de éste, el mal comportamiento del material de transporte (-1,6%).

Por áreas geográficas, las exportaciones no energéticas dirigidas a la OCDE aumentaron el 7,5%, siendo el ascenso del 9,8% en las destinadas a la UE mientras que hacia el resto de países OCDE retrocedían un 3,2%. Por su parte, las importaciones con origen en la UE aumentaron el 6,8%, por debajo del avance en el conjunto de la OCDE que fue del 8% y que se apoyó en el dinamismo del resto de países OCDE (16,4%).

14. taula / Cuadro nº 14
Atzerriarekiko ondasun fluxuak
Flujos de bienes con el extranjero

	Esportazioak		Inportazioak		Saldoa		
	Exportaciones		Importaciones		Saldo		
	Guztira Total	Ez ener. No ener.	Guztira Total	Ez ener. No ener.	Guztira (milioi euro) Total (mill. euros)	Ez ener. (milioi euro) No ener. (mill. euros)	
2000							2000
I hiruhilekoa	17,2	15,0	48,7	25,8	485,7	858,6	I trimestre
II hiruhilekoa	13,5	9,8	31,7	13,7	659,1	1.052,3	II trimestre
III hiruhilekoa	19,5	17,9	34,9	28,8	240,3	597,1	III trimestre
IV hiruhilekoa	19,9	18,5	36,1	18,6	189,0	775,1	IV trimestre
2001							2001
I hiruhilekoa	1,6	1,7	2,1	3,0	482,6	849,0	I trimestre
II hiruhilekoa	2,9	2,6	7,3	17,9	453,3	801,3	II trimestre
III hiruhilekoa	-5,3	-4,9	1,2	-12,8	345,0	733,8	III trimestre
IV hiruhilekoa	-6,4	-5,2	-2,6	-0,4	340,3	636,9	IV trimestre
2002							2002
I hiruhilekoa	-2,1	-1,2	3,9	3,8	333,8	746,3	I trimestre
II hiruhilekoa	-8,5	-6,2	-9,1	-10,1	431,0	834,0	II trimestre
III hiruhilekoa	4,5	7,8	3,4	9,2	384,5	766,7	III trimestre
IV hiruhilekoa	8,3	8,5	10,3	6,3	317,2	737,5	IV trimestre
2003							2003
I hiruhilekoa	4,6	3,2	4,0	5,3	363,1	729,9	I trimestre
II hiruhilekoa	7,1	6,8	8,5	11,9	425,9	792,8	II trimestre

Iturria: Eustatek egina, Aduana eta Zerga Bereziatarako Sailaren datuetan oinarrituta.

Fuente: Eustat según datos del Dpto. de Aduanas e Impuestos Especiales.

Analisis aurtengo bigarren hiruhilekora mugatzen bada, kanpo saldoak EAEko barne produktu gordinaren hazkundeari egindako ekarpena hamarren negatibo bat izan dela adierazi behar da, aurreko hiruhilabeteko emaitza bera errepikatuz. Kanpo saldoaren ekarpena, beraz, egonkortu da, nahiz eta inportazioen portaera (%8,5) esportazioena (%7,1) baino hedakorragoa izan zen bigarren hiruhilekoan, lehen hiruhilabeteko bilakaera guztiz bestelakoa izan zen bitartean (%4,6 gehitu ziren esportazioak eta %4 inportazioak). Aipatua izan denez, bereziki deigarria da EAEko esportazioen hazkunde erritmoak izan duen bizkortzea, zeren EAEko produktuak erosten dituzten herrialde nagusiak, hau da Frantzia eta Alemania, moteltzeko joera garbian daude murgilduta. Halaber, euroaren balio irabaziak ez du lagundu Europar Batasuneko ekoizkinen lehiakortasuna. Azkenik, EAEko enpresek kanpo merkatutik iritsitako eskari zorroaren gainean dituzten iritziek ez dute horren bilakaera ona izateko arrazoirik ematen, aitzitik, aurreko hiruhilabetekoak baino igurikapen askoz ere okerragoak iragartzen zituzten. Estatuko gainontzeko erkidegoekin izandako salerosketei dagokienez, eskura dauden adierazleek okertzeko joera garbia erakusten jarraitu zuten.

Centrando ahora el análisis en el segundo trimestre de este año, la contribución estimada del saldo exterior al aumento del PIB vasco fue de una décima porcentual negativa, repitiendo el resultado del trimestre anterior. La estabilización en la aportación del saldo exterior se produjo pese a que el comportamiento de las importaciones (8,5%) fue más expansivo que el de las exportaciones (7,1%) durante el segundo trimestre, mientras que en el primer trimestre la evolución registrada fue la inversa (4,6% de aumento de las exportaciones y 4% de las importaciones). Como ya se ha comentado, resulta especialmente llamativa la aceleración en el ritmo de crecimiento de las exportaciones vascas, ya que ésta se produjo en un escenario de desaceleración económica de los principales países destino de productos vascos, como son Francia y Alemania, y en un contexto de apreciación del euro que no favoreció la competitividad de los productos de la UE. Finalmente, tampoco las opiniones sobre cartera de pedidos de las empresas vascas procedentes del mercado exterior confirman una evolución tan positiva, sino que por el contrario, reflejan unas expectativas ostensiblemente peores respecto al trimestre anterior. Por lo que respecta a los intercambios con el resto del Estado, los indicadores disponibles siguieron mostrando una tendencia clara hacia el empeoramiento.

15. taula / Cuadro nº 15
Ondasunen merkataritza atzerriarekin (bigarren hiruhilekoan)
Comercio de bienes con el extranjero (segundo trimestre)

Unitatea: milioi eurotan

Unidad: millones de euros

	Esportazioak			Inportazioak			
	Exportaciones			Importaciones			
	2002	2003	ald. %a % var.	2002	2003	ald. %a % var.	
GUZTIRA	2.887,8	3.092,7	7,1	2.456,9	2.666,8	8,5	TOTAL
Energiaz bestelakoak	2.764,6	2.953,6	6,8	1.930,6	2.160,8	11,9	No energéticas
Nekazaritzakoak	100,8	126,6	25,6	224,8	226,1	0,6	Prod. agrícolas
Kimikoak	83,5	84,9	1,8	93,3	102,7	10,1	Química
Kautxua eta plastikoa	212,5	200,7	-5,6	125,5	139,8	11,4	Caucho y plástico
Papera	101,1	106,1	4,9	85,0	74,9	-11,9	Papel
Metalak eta manufaktur.	687,0	697,9	1,6	570,3	673,4	18,1	Metales y sus manuf.
Ekipo ondasunak	1.338,3	1.450,1	8,4	624,8	732,0	17,2	Bienes de equipo
Makinak eta tresnak	654,3	749,6	14,6	479,4	484,0	1,0	Máq. y aparatos
Garraio materiala	684,0	700,5	2,4	145,3	248,0	70,7	Mat. de transporte
Beste manufakturak	219,0	257,4	17,5	199,7	200,5	0,4	Otras manufacturas
Sailkatugabeak	22,4	29,9	33,4	7,3	11,4	56,2	No clasificados

Iturria: Eustatek egina, Aduana eta Zerga Bereziatarako Sailaren datuetan oinarrituta.

Fuente: Eustat según datos del Dpto. de Aduanas e Impuestos Especiales.

2003ko bigarren hiruhilekoan, esportazioak guztira %7,1 gehitu ziren urte arteko tasan eta energiaz bestelakoak, berriz, %6,8, hurrenez hurren 3.093 milioi euroetara eta 2.953 milioi euroetara iritsi zirelarik. Atzerritik ekarritako inportazioak, berriz, %8,5 hazi ziren guztira eta %11,9 energiaz bestelakoak. Hazkunde horien ondorioz, inportatutakoaren zenbatekoa 2.666 milioi euroetara iritsi zen guztira eta 2.160 milioi eurotik gora energiaz bestelako atalean. Kopuru horiek erkatuz, atzerriarekiko saldoa 425,9 milioi eurokoa izan zen salerosketa guztietarako eta 792,8 milioi eurokoa energiaz bestelako produktueterako.

Energiaz bestelako esportazioetan, aduanako atal guztiek urte arteko hazkundea lortu zuten, salbuespen bakarria kautxua eta plastikoak izan zelarik (%-5,6). Gorakada garrantzitsuenak nekazaritzako produktuenak (%25,6), ekipamendurako ondasunenak (%8,4), bestelako manufakturenak (%17,5) eta paperarena (%4,9) izan ziren eta apalagoa, berriz, metalak eta beren manufakturak delakoarena (%1,6). Ekipamendurako ondasunen artean, makinak eta tresnak izenekoak lortu zuen portaera onena (%14,6), garraio materialarena %2,4ko hazkunde txikiagoan geratu zen bitartean.

Atzerritik ekarritako inportazio ez-energetikoetan, atal guztiek lortu zituzten urte arteko hazkunde positiboak, salbuespen bakarria papera (%-11,9) izan zelarik. Hazkunde garrantzitsuenak kimikarena (%10,1), kautxu eta plastikoena (%11,4), metalak eta beren manufakturena (%18,1) eta ekipamendurako ondasunena (%17,2) izan ziren. Azken atal honen barruan, eta esportazioetan ez bezala, garraio materialarena izan zen hazkunderen eragile nagusia, %70,7ko hazkunde ezohikoa jaso baitzuen. Makinak eta tresnak, %1 baino ez ziren gehitu.

Helburu herrialdearen arabera, EAEko esportazio ez-energetikoen portaera ezberdinak erakutsi zituzten. Izan ere, garatutako herrialdeetara bidalitakoek gehikuntza garrantzitsua (%7,9) lortu zuten bitartean, garatu gabeko herrialdeetara joan direnak oso gutxi

Durante el segundo trimestre de 2003, las exportaciones totales aumentaron un 7,1% interanual mientras que las no energéticas avanzaron el 6,8%, contabilizándose casi 3.093 millones de euros y más de 2.953 millones de euros, respectivamente. En cuanto a las importaciones desde el extranjero, el incremento fue del 8,5% en las totales y del 11,9% en las no energéticas, porcentajes que sitúan lo importado en más de 2.666 millones de euros en el cómputo total y más de 2.160 millones en el subtotal no energético. En consecuencia, los saldos con el extranjero se situaron en 425,9 millones para los intercambios totales y en 792,8 millones de euros para los no energéticos.

En el apartado exportador no energético, todas las secciones arancelarias, a excepción de caucho y plásticos (-5,6%), registraron avances interanuales. Los más importantes correspondieron a los productos agrícolas (25,6%), bienes de equipo (8,4%), otras manufacturas (17,5%) y papel (4,9%), siendo más moderado el de metales y sus manufacturas (1,6%). Dentro de los bienes de equipo, el subgrupo de las máquinas y aparatos fue el que reflejó un mejor comportamiento (14,6%), mientras que el material de transporte se situó en un moderado avance de 2,4%.

En las importaciones no energéticas procedentes del extranjero, todas las rúbricas, a excepción del papel (-11,9%), anotaron crecimientos interanuales positivos. Las más dinámicas fueron la química (10,1%), el caucho y plásticos (11,4%), los metales y sus manufacturas (18,1%) y los bienes de equipo (17,2%). Dentro de este último, al contrario que en las exportaciones, fue el subsector del material del transporte el que lideró claramente el crecimiento al registrar un intenso y atípico incremento interanual del 70,7%. Por su parte, las máquinas y aparatos avanzaron un modesto 1%.

Por áreas de destino, las exportaciones no energéticas vascas mostraron un comportamiento desigual. Así, mientras las dirigidas a los países desarrollados registraron un notable incremento (7,9%), las que tenían por destino los países no desarrollados aumentaron

hazi ziren (%1,2). Bigarren talde honen hazkundea txikia izatea Amerika Latinoko herrialdeetara bidalitako energiaz bestelako salgaien jaitsierak (%-28,8) eragin du, agian gune horrek bizi dituen zailtasunen eta euroaren balio irabaziaren ondorioz. Beste aldetik, herrialde garatuera (OCDEkoetara) esportatutako energiaz bestelako salgaien bilakaeraz esan behar da hazkundea Europar Batasuneko herrialdeetara bidalitako esportazioei esker lortu dela (%10,1), zeren OCDEko gainontzeko herrialdeek erositakoa gutxiago izan zelako (%-2,7). Hala ere, talde horren barruan dagoen herrialde handienak, hots, AEBk, nabarmen areagotu zituen EAEko produktuen erosketak (%25). Europar Batasuneko herrialdeen artean, Italia eta Alemania izan ziren hazkunde handienak lortu zituztenak, %39,8 eta %7,6, hurrenez hurren. EAEko esportazioek Europan duten merkatu garrantzitsuenak, hots, Frantziak %3ko gorakada baino ez zuen lortu.

Energiaz bestelako inportazioek, hala OCDEko herrialdeetatik etorriek nola besteek, gehikuntza garrantzitsuak lortu zituzten. Hain zuzen ere, OCDEkoak ez diren herrialdeetatik ekarritako inportazioak %13,2 areagotu ziren eta OCDEko herrialdeetakoak zertxobait gutxiago (%11,7). OCDEtik kanpoko herrialdeen artean, inportazioen hazkundearen jatorria bereziki Erdialdeko eta Ekialdeko Europako herrialdeetatik iritsitako produktueta datza, %36 goratu baitziren. OCDEko herrialdeen artean, berriz, Europar Batasunetik inportatutakoaren erritmoa areagotu zen eta %10,9an kokatu, baina OCDEko gainontzeko herrialdeek portaera hobea izan zuten eta %17,2ra iritsi ziren. EBko herrialdeen artean, aipatzekoak dira, alde batetik, Alemaniatik inportatutakoaren gorakada sendoa (%25,6) eta, beste aldetik, Italiatik inportatutakoaren jaitsiera (%-3,0).

muy levemente (1,2%). El ligero avance de este segundo grupo fue consecuencia del deterioro en las expediciones no energéticas a los países de América Latina (-28,8%), evolución posiblemente relacionada con las dificultades de esta zona y con la fuerte apreciación del euro. Por otro lado, en lo que respecta a la evolución de las exportaciones no energéticas a los países desarrollados (OCDE), el crecimiento se debió a las dirigidas hacia los países de la UE (10,1%) ya que las expediciones hacia el resto de países de la OCDE registraron un moderado decrecimiento (-2,7%), si bien las exportaciones no energéticas al país de mayor peso en este subgrupo, esto es, EEUU, se incrementaron notablemente (25%). Dentro de los países de la UE, fueron Italia y Alemania consecutivamente quienes encabezaron el ranking de mayores crecimientos con un 39,8% y 7,6% respectivamente, frente al 3% de Francia, el socio europeo de mayor importancia como mercado de exportación vasco.

Por su parte, las importaciones no energéticas, tanto las provenientes de la OCDE como las de fuera de la OCDE experimentaron incrementos importantes, siendo en todo caso de una cuantía ligeramente mayor las procedentes de los países de fuera de la OCDE (13,2%) respecto a las de los países OCDE (11,7%). En el ámbito no OCDE, el incremento importador tuvo su origen fundamental en las recepciones procedentes de los países de la Europa Central y del Este (36%). En el grupo de la OCDE, el ritmo importador desde la UE se aceleró situándose en el 10,9%, aunque se mantuvo por debajo del mejor comportamiento del resto de países OCDE que alcanzaron un crecimiento de 17,2%. Dentro de los países comunitarios destaca, por un lado, el fuerte ascenso de las importaciones desde Alemania (25,6%) y por otro, el moderado descenso de las importaciones desde Italia (-3,0%).

16. taula / Cuadro nº 16
EAEren eta atzerriaren arteko energiaz bestelako salerosketen jatorria eta helburua
Bigarren hiruhilekoa
Origen/destino de los flujos no energ. del País Vasco con el extranjero
Segundo trimestre

Unitatea: milioi eurotan

Unidad: millones de euros

EREMUAK	Esportazioak Exportaciones			Inportazioak Importaciones			Saldoa Saldo		ÁREAS
	2002	2003	ald. %a % var.	2002	2003	ald. %a % var.	2002	2003	
GUZTIRA	2.764,6	2.953,6	6,8	1.930,6	2.160,8	11,9	834,0	792,8	TOTAL
OCDE	2.337,6	2.521,5	7,9	1.607,2	1.794,7	11,7	730,4	726,8	OCDE
Europar Batasuna:	1.922,4	2.117,4	10,1	1.402,4	1.554,7	10,9	520,0	562,7	Unión Europea:
Frantzia	578,6	596,2	3,0	352,2	361,2	2,6	226,5	235,0	Francia
Alemania	438,3	471,4	7,6	294,2	369,5	25,6	144,1	101,9	Alemania
Erresuma Batua	225,5	235,8	4,6	224,2	270,2	20,5	1,3	-34,4	Reino Unido
Italia	208,8	292,0	39,8	213,8	207,3	-3,0	-5,0	84,7	Italia
OCDEko besteak:	415,2	404,1	-2,7	204,8	240,0	17,2	210,4	164,1	Resto OCDE:
AEB	138,2	172,8	25,0	54,1	83,1	53,6	84,1	88,7	EE.UU.
OCDEtik kanpokoak:	426,9	432,1	1,2	323,4	366,1	13,2	103,5	66,0	No OCDE:
SESB zena eta eki.	35,0	64,5	84,3	67,7	92,1	36,0	-32,7	-27,6	Ex-URSS y Eur. E.
Amerika Latinoa	162,6	115,8	-28,8	74,3	81,5	9,7	88,3	34,3	América Latina
BIAH	16,8	17,3	3,0	18,0	20,8	15,6	-1,2	-3,5	PARI
Munduko besteak	212,5	234,5	10,4	163,3	171,7	4,7	49,2	63,5	Resto del mundo

Iturria: Eustatek egina, Aduana eta Zerga Bereziatarako Sailaren datuetan oinarrituta.

Fuente: Eustat según datos del Dpto. de Aduanas e Impuestos Especiales.

3. EAE-RAKO AURREIKUSPEN MAKROEKONOMIKOA ***EL ESCENARIO MACROECONOMICO PARA EL PAIS*** **VASCO**

3.1. Kanpoko ingurunearen bilakaeraren gaineko hipotesiak

Hipótesis de evolución del entorno exterior

Azken bi urtean mundu mailan bizi den moteltze biziak garbi utzi du AEBetako ekonomia dela oraindik hazkunde globalaren eragile nagusia eta beraren portaerak, goranzkoa denean zein beheranzkoa denean, mundu osoaren bilakaera baldintzatzen duela. Zentzu horretan, Ekonomia eta Diru Batasuna (EDB) ez da gai izan kanpo shockak saihesteko eta bilakaera autonomo bat izateko. Are gehiago, ez da gauza izan AEBetako ekonomiak azken hiruhilekoetan lortu duen susperraldi neurrikoa baliatzeko.

2002. urtean arazo ekonomiko larriak eta ziurgabetasun iraunkorrak jasan ondoren, ezagutu diren azken datuek munduko ekonomiaren balizko susperraldia iragarri dute 2003ko bigarren erdirako. Izan ere, Irakeko gerra nahiko azkar amaitu izanak, nahiz eta oraindik tentsio geopolitikoak egon badauden, nazioarteko ekonomiaren eszenarioaren inguruan zeuden zenbait ziurgabetasun uxatu ditu, munduko ekonomia atzeraldi sakonean sartuko zukeen petrolio krisiaren mehatxua urrunduz. Dena dela, nahiko iritzi zabala da nazioarteko susperraldia bereziki AEBetako ekonomiaren bultzadan eta gainontzeko ekonomietan bultzada horrek eragingo duen hazkundean oinarrituko dela pentsatzea.

Oro har, AEBetako ekonomiaren hazkunde aurreikuspenak hobetu dira azken hilabeteetan, bereziki herrialde horretan ezarri diren politika makroekonomiko hedakorren ondorioz. Hain zuzen ere, Nazioarteko Diru Funtzak (NDF) aurtengo irailean egin dituen aurreikuspenek %2,6ko hazkunde erritmoa iragarri dute urte honetarako (duela sei hilabete baino lau hamarren gehiago) eta %3,9 2004. urterako (udaberriaren baino hiru hamarren gehiago). Hala ere, aurreikuspen horiek kale egin dezakete oraindik arrisku garrantzitsuak daudelako. Arrisku horien artean, AEBetako oraingo susperraldia ahalbidetzen ari den defizit publiko handiari (BPGren %4aren ingurukoa) etorkizunean ere eusteko zailtasuna dago.

Era berean, azken datuek Japoniako hazkundearen aurreikuspenak ere hobetu dituzte, neurri batean kanpo arloaren portaerari esker, behin SARS (Arnas Aparatuko Sindrome Larria) gaixotasunak Asiako hego-ekialdeko herrialdeetan izan dituen eragin negatiboak gaindituta.

Edozein kasutan, munduko ekonomiak izango duen balizko susperraldi hori ezberdintasun handiak izango ditu herrialdeen arabera. Izan ere, AEBetan eta Japonian ez bezala, Europar Batasuneko ekonomiaren hazkundea geldialdian dago oraindik, atzeraldian sartzeaz, barne eskaria suspertzeko ezintasunaren ondorioz eta euroaren sendotasunarengatik, esportazioen bidezko bizkortzea galgatzen duelako. Hori dela eta, behin eta berriro jaitsi dira euroguneko herrialde nagusietarako aurreikuspenak. Zehazkiago adierazita, Alemanian dagoen egoera txarrak (urte honetarako ez dela haziko aurreikusi da) eta Frantzia zein Italian bizi diren bilakaera ahulek Europako susperraldia atzeratu dute eta nazioarteko erakunde nagusien ustez 2003. urtean hazkundea ez da %1era iritsiko (%0,5aren inguruan ibiliko da), 2004. urtekoa puntu bat handiagoa izango delarik.

La clara desaceleración experimentada a nivel mundial durante los dos últimos años ha venido a refrendar el papel central que todavía ocupa la economía de EEUU como motor global del crecimiento, condicionando con su comportamiento alcista o bajista la evolución del total. En este sentido, la economía de la UEM no sólo ha sido incapaz de sustraerse a los shocks externos y dibujar una evolución autónoma, sino que incluso no ha sabido aprovechar el repunte moderado experimentado por la economía americana en los últimos trimestres.

Después de un año 2002 lastrado por fuertes problemas económicos y persistentes elementos de incertidumbre, los últimos datos conocidos parecen apuntar a una posible recuperación moderada de la economía mundial en la segunda mitad de 2003. De hecho, la finalización relativamente rápida de la guerra en Irak, aunque todavía persisten tensiones de carácter geopolítico, ha despejado algunas de las incertidumbres que rodeaban el escenario económico internacional diluyéndose el temor a una crisis petrolífera que sumerja a la economía mundial en una profunda recesión. En todo caso, parece existir un consenso amplio en que la recuperación internacional se basará fundamentalmente en el empuje de la economía norteamericana y en el efecto de arrastre sobre el resto de las economías.

En líneas generales, las expectativas de crecimiento de la economía estadounidense han mejorado en los últimos meses debido, básicamente, al impacto de las políticas macroeconómicas expansivas instrumentadas. Así, las previsiones realizadas por el FMI en septiembre de este año prevén ritmos de crecimiento del 2,6% para este año (cuatro décimas más que hace seis meses) y del 3,9% en 2004 (tres décimas más que en primavera). No obstante, estas previsiones podrían verse condicionadas por riesgos importantes entre los que se encuentra la sostenibilidad a futuro del déficit público norteamericano (alrededor del 4% del PIB) que está posibilitando la actual recuperación.

De igual modo, los últimos datos también han mejorado las expectativas de crecimiento para Japón debido, en parte, al comportamiento del sector exterior una vez superados los efectos negativos del SARS (Síndrome Agudo Respiratorio Severo) en los países del sudeste asiático.

En todo caso, esta presumible recuperación de la economía mundial presenta una gran desigualdad geográfica ya que, frente a EE.UU. y Japón, el crecimiento económico de la UE continúa en una fase de letargo, situándose al borde de la recesión, como consecuencia de la incapacidad para reactivar la demanda interna y por la fortaleza del euro, que frena la salida vía exportaciones. Por todo ello, una y otra vez se revisan a la baja las previsiones de los principales países de la zona euro. En particular, la mala situación que atraviesa Alemania (se prevé un crecimiento nulo para este ejercicio), unido a la débil evolución de Francia e Italia retrasan la recuperación europea que, según los principales organismos internacionales, no alcanzará el 1% en el 2003 (en torno al 0,5%), estimándose en un punto más el crecimiento para el 2004.

17.taula/Cuadro nº 17
NDFren ekonomi aurreikuspenak
Previsiones económicas del FMI

BPG	2001	2002	2003	2004	Udaberriko txostenarekiko aldea		PIB
					Diferencias sobre informe primavera		
					2003	2004	
Mundua	2,4	3,0	3,2	4,1	0,0	0,0	Mundial
Ekonomia aurreratuek	1,0	1,8	1,8	2,9	-0,1	0,0	Economías avanzadas
EEBB	0,3	2,4	2,6	3,9	0,4	0,3	EE.UU.
Japonia	0,4	0,2	2,0	1,4	1,2	0,4	Japón
Alemania	0,8	0,2	0,0	1,5	-0,5	-0,4	Alemania
Frantzia	2,1	1,2	0,5	2,0	-0,7	-0,4	Francia
Erresuma Batua	2,1	1,9	1,7	2,4	-0,3	-0,1	Reino Unido
Espainia	2,7	2,0	2,2	2,8	0,0	-0,3	España
Eurogunea	1,5	0,9	0,5	1,9	-0,6	-0,4	Zona Euro
BIAH	0,8	4,8	2,3	4,2	-1,8	-0,3	PARI
Garapen bideko herriak	4,1	4,6	5,0	5,6	0,0	-0,2	Países en desarrollo

Iturria: NDF 2003ko irailean.

Fuente: FMI Septiembre 2003.

Europako ekonomiaren egoera txarraren aldean, Espainiakoak euroaren eremuko batez bestea baino bi puntu inguru gehiagoko hazkundeari eutsi dio eta iazko amaieratik hona susperraldiko joera leuna erakusten ari da. Portaera hobea horren arrazoi nagusia barne eskariaren %3tik gorako hazkunde tasan datza bereziki. 2003. urterako ekonomi aurreikuspenek %2ko hazkundera zertxobait gairatutako dela urte osoan iragarri dute, 2004. urterakoak %3ra iritsiko dela aurreikusiz.

EAEko ekonomia oro har eta bereziki bere industria kanpo merkatuen oso menpean dagoenez, nazioarteko egoeraren gorabeherek (industriaren zikloek eta inbertsioen zikloak) baldintzatzen dituzte haien bilakaera. Alde batetik, mundu mailako eszenarioa oro har baikorra da, baina Europako ekonomian atzeraldi arriskua dago eta, hain zuzen ere, esparru horretara zuzentzen dira atzerria esportatutako %70 baino gehiago. Beste aldetik, Espainiako ekonomiak, EAEk esportatzen duen guztiaren %50 inguru jasotzen baitu, bizitasun handiko aurreikuspenak erakutsi ditu, nahiz eta hauek ere Europako balizko hobekuntzaren menpean egon.

EAEko ekonomiaren kanpo ingurunearentzat hurrengo ekitaldiarentzat egin diren bilakaera hipotesiak honako suposamendu hauetan oinarritu dira:

- Nazioarteko ekonomiaren susperraldia 2003. urte amaieran hasiko da eta 2004. urtetik aurrera nabarmen hobetuko da, baina euroaren esparruan geldotasuna izango da nagusi eta datorren urtea arte ez da hasiko suspertzen.
- Espainiako hazkundera Europako batez bestearen gainetik jarraituko da.
- Interes tasen beheranzko joera agortuta dagoela eman arren, Europako ekonomiaren egoera ikusita, epe laburrean ez da

Frente a esta situación de deterioro de la economía europea, la economía española mantiene un crecimiento diferencial de unos dos puntos con la media de la zona euro, presentando un perfil de suave recuperación iniciado a finales del pasado ejercicio. Este comportamiento diferencial se debe, fundamentalmente, a unas tasas de crecimiento de la demanda interna superiores al 3%. Las previsiones económicas para 2003 sitúan el cierre del ejercicio en tasas ligeramente superiores al 2%, aumentando hasta el 3% para el año 2004.

La elevada dependencia de la economía vasca de los mercados exteriores, en especial su sector industrial, le hace muy vulnerable a la situación internacional (ciclos industriales y ciclo inversor), que presenta, en principio, un escenario moderadamente optimista a nivel mundial pero con riesgos de recesión en la zona europea que es, precisamente, a donde destina más del 70% de sus exportaciones al extranjero. Por el contrario, la economía española, receptora de alrededor del 50% de todo lo exportado por el País Vasco, presenta unas previsiones de notable dinamismo aunque vinculadas a su vez con la hipotética mejora europea.

Las hipótesis de evolución del entorno exterior de la economía vasca para el próximo ejercicio se basan en los siguientes supuestos:

- Comienzo de la recuperación económica internacional a finales del 2003, mejorando significativamente a partir de 2004, pero estancamiento en la zona euro y retraso de su reactivación hasta el próximo ejercicio.
- El crecimiento español seguirá por encima de la media europea.
- A pesar de que parece agotada la tendencia bajista de los tipos de interés, dada la situación económica europea, no se esperan

espero interes tasen igoerarik. Europako ekonomia suspertzen den heinean, interes tasak zertxobait igoko direla espero da.

subidas de tipos a corto. A medida que se recupere la economía europea se espera un ligero incremento de los tipos de interés.

- Euroak oraingo sendotasunari eutsiko dio, baina emeki-emeki dolarraren baliora hurbilduko da.
- El euro mantendrá su fortaleza, aunque irá acercándose a la paridad con el dólar.
- Estatuan enplegua sortzen jarraituko da eta langabezi tasa apaltzen segituko da. Jaitsiera horren tamaina faktore berri batek baldintzatuko du: inmigrante askoren etorrera.
- En el ámbito estatal, se continuará con la creación de empleo, traduciéndose en un descenso de la tasa de paro dependiendo de un nuevo factor: la fuerte entrada de inmigrantes.

3.2. EAEko aurreikuspen makroekonomikoa

El escenario macroeconómico de la CAPV

2002. urtean %1,7 hazi zela estimatu ondoren, 2003. urterako espero den gehikuntza erreala %2,2an kokatu da. Mundu mailako panorama baikorra izan arren, Europako ekonomiak gaur egun bizi duen egoera geldoak (nazioarteko susperraldiak emango dion bultzadaren zain) ezinezkoa egiten du EAeko ekonomiarentzat aldaketa garrantzitsurik iragartzea. Beraz, 2004. urterako hazkundea %2,6 izango dela estimatu da.

Ekitaldi honetan, familien azken kontsumoko gastua %1,7an egonkortu da eta kapital finkoaren eraketa gordinak %3 gaindituko du. Gorakada hori ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioaren susperraldiari esker gertatuko da, baina baita eraikuntzan egindako inbertsioari esker ere, zeren hazkunde erritmoa gutxika-gutxika moteldu arren, oraindik ziklo hedakorra ez delako agortu.

Nazioarteko ingurunearen bilakaera erabakigarria da datorren urterako EAeko ekonomiaren aurreikuspenak zehazteko orduan, zeren barne eskaria, kapital eraketa gordina motel egonda, ez baitirudi gai izango denik hazkundea %2,5aren gainera igotzeko. Munduko ekonomia suspertuko, industriaren zikloa hobetuko eta inbertsiorako ondasunen eskaria igoko den heinean, EAeko industriaren jarduera garatuz joango da eta hazkundearen motore nagusia izateko eraikuntza orain jokatzen ari den papera bereganatuko du, azken hau hazkunde erritmoa moteltzen ari delako.

Hazkundea oso handia ez izan arren, EAeko ekonomia enplegua sortzen jarraituko da, nahiz eta erritmo txikiagoan izan, eta langabezi tasa %8,0ra iritsiko da 2003. urtean eta %7,9ra 2004. urtean.

Azkenik, inflazioari dagokionez, BPGren deflatoarearen hazkunde tasa jaitsiko dela aurreikusi da, azken urteetako gorakaden ondoren, eta Europako Banku Zentraleko moneta politikak ezarri duen helburura hurbilduz joango da.

Tras la estimación para el año 2002 del 1,7%, el incremento real esperado para el 2003 se sitúa en el 2,2%. Si bien el panorama mundial se presenta optimista, la actual situación de letargo de la economía europea, pendiente del empuje de la reactivación internacional, no permite hablar de cambios importantes en la economía vasca, estimándose para el año 2004 un aumento del 2,6%.

Durante el presente ejercicio, el gasto en consumo final de los hogares permanece estancado en el 1,7% mientras que la formación bruta de capital fijo superará el 3%, repunte debido tanto a la recuperación de la inversión en bienes de equipo como a una inversión en construcción que, aunque desaceleraría lentamente su ritmo de crecimiento, todavía no ha agotado su ciclo expansivo.

La evolución del entorno internacional se presenta fundamental a la hora de determinar las perspectivas de la economía vasca para el próximo ejercicio, ya que la demanda interna, con una formación bruta de capital moderada, no parece imprimir el impulso necesario para experimentar crecimientos superiores al 2,5%. En la medida que la economía mundial se recupere, mejore el ciclo industrial y aumente la demanda de bienes de inversión, la industria vasca irá remontando su actividad y sustituyendo a la construcción, que va desacelerando su ritmo de crecimiento, como principal motor de crecimiento.

A pesar de este crecimiento moderado la economía vasca, aunque a un menor ritmo, seguirá creando empleo, alcanzando la tasa de paro del 8,0% en el 2003 y del 7,9% en el 2004.

Por último, respecto a la inflación, se prevé un descenso de la tasa de crecimiento del deflactor del PIB tras el repunte de los últimos ejercicios, volviendo lentamente a la senda que persigue la política monetaria del BCE.

18. taula / Cuadro nº 18
EAerako aurreikusi den egoera makroekonomikoa
Escenario macroeconómico previsto para la CAPV

	2002(a)	2003(p)	2004(p)	
ESKARIA				DEMANDA
Kontsumo pribatua	1,6	1,7	1,8	Consumo privado
Kontsumo publikoa	3,2	3,0	3,2	Consumo público
Inbertsioa (KEG)	2,4	3,4	3,2	Inversión (FBC)
Barne eskaria	2,0	2,4	2,4	<i>Demanda Interna</i>
Kanpo Saldoaren ekarpena	-0,4	-0,2	0,2	<i>Aportación del Saldo Exterior</i>
BPG	1,7	2,2	2,6	PIB
ESKAINTZA				OFERTA
Industria	0,3	1,2	2,0	Industria
Eraikuntza	4,7	3,7	2,8	Construcción
Zerbitzuak	2,3	2,3	2,6	Servicios
BPGren deflatorea	2,9	3,9	3,0	Deflactor del PIB
Enplegua (%)	1,5	1,2	1,2	Empleo (%)
Langabezi tasa	8,3	8,0	7,9	Tasa de paro

(a) Aurrerapena. (p) Aurreikuspena.

Oharra: 2002eko datuak Eustatenak dira. 2003-2004 denboraldiko datuak ISERE eredian oinarrituta daude.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (2003-2004) eta Eustat (2002)

(a) Avance. (p) Previsión.

Nota: El año 2002(a) son datos de EUSTAT. El período 2003-2004 son datos basados en el modelo ISERE.

Fuente: Dirección de Economía y Planificación (2003-2004) y Eustat (2002).